

**GIPUZKOAKO NERABEENTZAKO
EKIPAMENDUETAN (GAZTELEKUAK)
GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEKO
OINARRIZKO GIDA**



SARRERA	3
EGITURA ETA METODOLOGIA	4
1. AUKERA BERDINTASUNAREN ALDERDI TEORIKOA	6
1.1 Sexu - genero sistema	7
1.2 Genero gizarteratzea	12
1.3 Aukera berdintasunerako politikak, estrategiak eta esku hartze motak	18
1.4 Genero ikuspegia barneratzearen garrantzia	21
2. AUKERA BERDINTASUNA NERABEENTZAKO EKIPAMENDUETAN	24
2.1 Generoa nerabeen aisian eta astialdian	24
2.2 Nerabeentzako ekipamenduen errealitate soziala, genero ikuspegitik	31
2.3 Nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzea	42
3. NERABEENTZAKO EKIPAMENDUETAN (GAZTELEKUAK) GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEKO IRIZPIDEAK	48
3.1 Diseinuan eta plangintzan	48
3.2 Beharren diagnostikoetan	51
3.3 Jarduerak programatzen	53
3.4 Jarrera, eginkizun eta baloreetan	55
3.5 Hezitzaile taldean. Eginkizun eta arduren banaketa	57
3.6 Hezitzaile eta neska mutilen arteko elkarrekintzan	58
3.7 Neska eta mutilen arteko harremanetan	60
3.8 Materialak lantzerakoan	62
3.9 Espazioaren definizioan eta banaketan	64
3.10 Ebaluaketan	66
4. GENERO IKUSPEGIAREKIN LAN EGITEKO TRESNA BALIAGARRIAK	68
4.1 Hizkuntz sexismoa eta androzentrismoa ekiditeko ildo nagusia	68
4.2 Hezkidetzaren lan tresna moduan	70
4.3 Nerabeekin generoa lantzeko jarduerak	72
5. GAKO-HITZEN GLOSARIOA	77
6. DOKUMENTUA EGITEKO ERABILITAKO MATERIALA	80
ERANSKINA. LABURPEN GRAFIKOA	

ZERGATIK BARNERATU BEHAR DIRA AUKERA BERDINTASUNERAKO IRIZPIDEAK NERABEENTZAKO EKIPAMENDUETAN?

Gipuzkoako Foru-Aldundiko Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Saileko Gazteria Zerbitzuaren Plan Estrategikoaren arabera, beharrezkoa da gazte politikak "...testuinguruari edo norberari loturiko gabeziak dituzten ume eta nerabeentzako diskriminazio positiboa sustatzea, genero ezberdintasunak gainditzea, hizkuntz eta kultur normalizazioa sustatzea, eta mestizajea kultur aberastasun moduan onartzea".

Beraz, gazte politikan parametro horiek landuz gero, nerabeentzako ekipamenduek, politika horren tresnak diren heinean, errekerimendu horiei erantzun beharko diete, lan proposamenak garatuz.

Testuinguru horretan, nerabeentzako ekipamenduetako programa eta zerbitzuetan genero ikuspegia eta aukera berdintasunaren printzipioa barneratu egin behar dira, beharrezkoa baita neskak eta mutilak gizarte generoaren menpe ez dagoen balore, portaera, norma eta aukera sistema batean prestatzea.

Gida honen helburua zenbait jarraibide orokor ezartzea da, nerabeentzako ekipamenduen eguneroko praktikan genero ikuspegia barneratzen laguntzeko.

Gida hau abiapuntu moduan pentsatua da, genero ikuspegia ekipamendu horien definizio, kudeaketa eta ebaluaketan era sistematikoan barneratzeko.

Beraz, gidan landutako kontzeptuen garapena hezitzaileen lan testuinguruari egokitzen saiatu gara.

⇐ *Gipuzkoako nerabeentzako ekipamenduetan (Gaztelekuak) genero ikuspegia barneratzeko oinarritzko gida sei kapitulutan **egitura-tua** da: Aukera berdintasunaren alderdi teorikoa, Aukera berdintasuna nerabeentzako ekipamenduetan, Nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzeko irizpideak, eta Genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarriak. Gidaren amaieran Gako-hitzen glosarioa dago, baita Dokumentua egiteko erabilitako materialari buruzko atal bat ere (bibliografia eta informazio iturriak).*

Aukera berdintasunaren alderdi teorikoa deitzen den lehen kapituluaren xedea genero ikuspegiaren oinarrian dagoen Generoaren Teoria ulertzeko beharrezko tresna teorikoak aurkeztea da.

Aukera berdintasuna aisia eta astialdiko ekipamenduetan bigarren kapituluan, nerabeentzako ekipamenduen testuinguru konkretua genero ikuspegitik ikertu dugu. Aisia eta astialdiari buruzko alderdi teorikotik abiatuta, ekipamendu horien errealiterara hurbildu gara, ekipamenduetako arduradunekin egindako elkarrizketetan lortutako informazioaren bidez. DFGk ekipamendu horietaz egiten duen definiziotik abiatuta, genero ikuspegia barneratzea beharrezkoa dela izan da gure ondorioa.

Hirugarren kapituluan, **Nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzeko irizpideak** kapituluan, alegia, aurreko bi kapituluetan alderdi teorikoa eta ekipamenduen testuingurua ikertu ondoren, zenbait jarraibide proposatzen ditugu, ekipamenduen egunerokotasuneko esparru guztietan genero ikuspegia barneratzea errazago izan dadin.

Genero ikuspegia lantzeko tresna baliagarriak deritzon laugarren kapituluan, ildo konkretu batzuk aurkezten ditugu, aurreko kapituluan aipaturiko genero ikuspegia barneratzeko irizpideen osagarri moduan, baina ikuspuntu erabat konkretutik.

Azkenik, bosgarren eta seigarren kapituluetan, gidan agertzen diren **Termino** baliagarrien Glosarioa aurki daiteke, gida ahal bezain ulergarria izan dadin. Era berean, dokumentua egiteko **erabilitako materiala** ere zehazten dugu.


Gida hau egiteko erabili dugun **metodologia** kualitatiboa izan da, eta hainbat teknika erabili ditugu:

- Bigarren mailako iturriengandik eskuratutako informazioa
- Hausnarketaren ondorioz egindako dokumentuen analisia
- Hainbat Gazteleketako arduradunei egindako 4 sakoneko elkarrizketa
- Adituei egindako 2 elkarrizketa

1 Aukera berdintasunaren alderdi teorikoa

Aukera berdintasunaren kontzeptua sortu da, eskubide-berdintasunak, berez, ezberdintasunak ez baititu desagerrarazten. Izan ere, esparru guztietan, emakumeen abiatze egoera gizonena baino oztopatuagoa da. Berdintasun formala egiatzko berdintasunera heltzeko urrats bat besterik ez da, eta esfortzu lana gehitu behar zaio. Berdintasuna sustatzeko helburuarekin erabili izan diren mekanismoetako bat *genero ikuspegia* izan da.

Abiapuntu teorikoa **Generoaren Teoria** da. Bertan oinarritzen dira Gida hone-tan aipatzen ditugun kontzeptu nagusiak:



Genero ikuspegia, ekintza ororen plangintzan gizonetzko eta emakumezkoen parte hartze bereizgarria balioesten duen prozesua da.

Praktikan, edozein arloko politika eta programak gauzatu, martxan jarri, kontrolatu eta ebaluatzerakoan, emakumeen kezka eta esperientziak gizonenak bezala barneratzeko xedea duen estrategia da. Azken finean, horren helburua emakumeek eta gizonen etekin berdinak ateratzea da, ezberdintasunak desagertu daitezkeen.

Aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzearen helburua gizarte testuinguru berri bat sortzea da; bertan, gizon eta emakumeek aukera berdinak litzuzkete, bizi sozial, pribatu, kultural, ekonomiko eta politikoa aurrera egiteko, genero eginkizun eta estereotipoek oztoporik eta pisurik ekarri gabe, ez emakumeentzat ez gizonentzat, emaitzak berdinak izan daitezkeen. Bizi publiko eta pribatuko arlo guztietan bi sexuen parte hartze orekatu eta parekidea du helburu, baldintza, ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun berdinekin. Justizia sozialaren baloreetan eta balore demokratikoetan oinarritzen da.

Genero ikuspegia eta Aukera berdintasuna sakondu ahal izateko, Generoaren Teoriako oinarritzko kontzeptuak aurretiaz lantzea ezinbestekoa da, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak agerian uzteko, eta, beraz, gaintitu behar direla erakusteko.

1.1. Sexu-genero sistema

Genero eta sexu kontzeptuak ezberdindu behar dira. Izan ere, sexuen arteko ezberdintasun batzuk naturalak dira. Aldiz, nahiz eta ezberdintasun horiei lotuak izan, sistema patriarkalak gizartean eta historian eraiki dituen gizon eta emakumeen arteko desorekak ez dira naturalak.


⇒ Sexu kontzeptua

“Sexu” terminoak naturari dagozkion ezaugarri biologiko eta fisikoei egiten die erreferentzia. Bi sexu kategoria daude: ***gizon eta emakume***

⇒ Genero kontzeptua

Genero terminoa ezberdintasun biologikoetan (sexuan) oinarrituz gizarte-an eraikitako gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunei dagokie. Generoak bi kategoria ditu: *femenino eta maskulino* ⇒ *Gizarte eraikuntza horrek ezaugarri batzuk emakumeei ala gizonei esleitzen dizkie; adibidez, "sentikortasuna femeninoa da" edota "autoritatea maskulinoa da" esatea.*

Sexua definitzen, generoa definitzen



⇒ Sexu-genero sistema

Sexu ezberdintasunetatik abiatuz, gizarteek eragiten dituzten jarduera, sinbolo, irudikapen, norma eta baloreen multzoa da.

Sistema horren testuinguruan, nortasun ezberdinak adosten dira gizon eta emakumeentzat. Hainbat arlotan gertatzen den prozesu historikoa da (familia, eskola, komunikabideak...), eta praktikan, pertsonen sexuaren araberako hierarkia dakar, nortasun maskulinoarekin lotutako guztiari balio gehiago ematen baitzaio.

⇒ Diskriminazioa, sistema horren ondorioa

Hierarkia hori diskriminazio bihurtzen da. Diskriminatzea pertsona bat modu ezberdinean tratatzea da, sexuaren arabera, eta ez bere gaitasun eta ahalen arabera. Esaterako, eginkizun, espazio, ezaugarri eta nortasun ezberdinak esleitzen zaizkio pertsona bakoitzari, sexu biologikoaren arabera. Horrek desoreka egoerak sortzen ditu, bai balore, eskubide eta aukerei dagokienez, bai boterean oinarritutako sexuen arteko harreman kodeari dagokionez.


Historian, emakumeak, izatez, gizonak baino gutxiago zirela onartu izan da. Horren ondorioz sortu dira emakumeek pairatzen dituzten ezberdintasunak eta diskriminazioa, eta horren ondorioz irauten dute oraindik ere.

Maskulinoak femeninoa baino balio gehiago duen gizarte eredu andro-zentrikoak argi uzten du sexua, berez, ez dela ezberdintasunen edota emakumeen diskriminazioaren zergatia; izan ere, elementu erabakigarria gizon eta emakumeek duten genero posizioa da.

Hierarkia horrek eragiten dituen diskriminazioak zuzenak ala zeharkakoak izan daitezke:

- Diskriminazio zuzena: emakumeak diskriminatu egiten dira, emakume izateagatik ➤ *Jolas arloko adibide konkretua izan daiteke neska bati emakumezkoa izateagatik kirol jakin bat debekatzea.*
- Zeharkako diskriminazioa: iduriz neutroak diren, baina praktikan emakumeentzako eragin ezkorra duten neurriak ➤ *Neskenganako zeharkako diskriminazioa da neska eta mutilei zuzenduriko jarduera bat antolatzea, jakinez, praktikan, mutilek gehiago parte hartu ohi dutela jarduera horretan.*

Diskriminazio egoera dago, pertsona bat era ezberdinean tratatuadalarik, talde jakinbatekoa izateagatik, eta bere ahal edota gaitasunen arabera.




Sexu-genero sistemaren bitartez, gizonaren inguruan eraikitako gizarte eredu androzentrikoak naturala dena eta gizarteak eraiki duena definitu ditu. Horien arabera sortutako ereduak zenbait ondorio ditu:

- Sexu kategoriaren arabera *pertsonak sailkatu* egiten dira, sistema men-deratzailea justifikatzeko.
- *Harremanen antolaketa* hierarkia batean oinarritzen da. Izan ere, gene- ro eginkizunak sexuaren arabera esleitzen dira, eta horrek baldintza- tzen ditu gizarte egiturako tokiak, erantzukizunen esleipena, denbora- ren erabilerak, gizarte funtzioak; aldi berean, emakume eta gizonen gustuak homogeneo egiten ditu. Oron buru, gizonak eta emakumeek aukera ezberdinak dituzte. Eraikitzen diren harremanak, hierarkia baten arabekoak diren heinean, mendekotasunezko harremanak dira. Genero maskulinoa da nagusia, eta femeninoa mendekoa. Enple- guan, hierarkia horren ondorioen adierazle argiena lanaren sexu zati- keta da. Izan ere, gizona koei ekoizpena dagokio, eta emakumezkoei ugalketa. Gizartean, gizona koei espazio publikoa dagokio; emakume- ei, aldiz, espazio pribatua.


Horren guztiaren ondorioz, arloen balorazioa ezberdina da sexu bati ala besteari dagokion arabera. Maskulinoak femeninoak baino prestigio, ezagupen eta fama hobekatu ditu. Beraz, balio handiagoa ematen zaie gizonezkoek egiten dituzten funtzio eta betebeharreri, baita arlo publikoko ikasketei ere; bigarren mailan uzten dira, ostera, arlo pribatuan lortutako gaitasunak eta etxeari dagozkionak, etxea emakumearekin lotu egiten baita.

Sexu-genero sistema zuzentzen duten harremanak

Sexu-genero sistema: emakumei eta gizonei eginkizun, balore, jarrera, portaera eta gaitasun ezberdinak esleitzen dizkien prozesua, dagoen gizarte ereduaren arabera.



Ezberdin baloratzen dira...




1.2. Genero gizarteratzea

⇒ Gizarteratze prozesua:

Gizarteratzea transmisio mekanismoa da, eta gizartean nagusi diren balore eta portaerak pertsonak barneratzea ahalbidetzen duen ikaskuntza iraunarratzen du.


Baloreak portaeran konkretu egiten dira, eta portaerak biziko hainbat arlotan gauzatzen dira, hala nola, familia harremanetan, arlo afektiboan, lan arloan, gizarte harremanetan, eta aisia eta astialdian.



Genero gizarteratzearen oinarrian ikaskuntza bat dago. Azken hori dela eta, gizon eta emakumeek gizon izatearen eta emakume izatearen eredu bat integratzen dute, eta eredu horiei hainbat norma, funtzio, planteamendu eta gizarte espazio propio dagozkie. Mundua maskulino-femenino, publiko-etxeko, ikusgarri-ikusezin eta autonomia-dependentsia bikoteetan banatzen da, hierarkia harremanen bitartez.

Generoen arabera, jarduera, betebeharrak eta planteamenduak ezberdintzen dira; eta, horiekin batera, gizon eta emakumeen arteko harremanak egituratzen dituzten banaketak ere gertatzen dira. Pribatua (familia eta etxea) eta

publikoaren arteko bereizketak lanaren lehen genero banaketa eragin du. Esaterako, emakumeei ugalketarekin lotutako jarduerak esleitzen zaizkie (familia zaintzea) eta gizonei ekoizpenarekin eta arlo publikoarekin lotutakoak.



Ezberdintasunean oinarrituriko genero gizarteratze ereduak balore eta ikaskuntza osoak oztopatzen ditu. Gizarteratze horrek emakumeei eta gizonei kalte egiten die; baina, gainera, emakumearen posizioa are zailagoa da, bere hasierako posizioa desorekatua eta diskriminatua baita.

Genero gizarteratze prozesu horren bitartez, gizartean feminino ala maskulintzat jotzen diren ezaugarriak sortzen dira. Prozesu hori hiru fasetan egiten da:

- *Generoa egokitzea edo esleitzea*: sortu orduko (baita lehenago ere) gertatzen da, kanpo itxura genitalaren arabera.
- *Genero nortasuna*: umeei hitz egiten ikastearekin batera berengantzen dute (2,3 urte), eta anatomia ezberdintasunen ezagutza baino lehenago gertatzen da. Mutila ala neska izatea barneratzean datza, gizarteak inposatzen dituen ezaugarri guztiekin, eta inposaturiko ezaugarri horiekin bat egiten duen ala ez autoebaluatea ere badakar. Nortasun hori bizi esperientzia egituratzeko modua bihurtzen da.
- *Genero eginkizuna*: Genero nortasun hori normen bitartez egituratzea.

Jadanik esan bezala, gizarteratzearen oinarrietako bi eginkizunak eta estereotipoak dira. Bi kontzeptu horiek elkarren artean lotura dute; hemen azal ditzagun.

⇒ **Genero eginkizunak:**

Norma, agindu eta aukeren multzoak osatzen ditu genero eginkizunak. Bertako gizarte eta kulturen araberakoak dira, berek definitzen baitute zer de femeninoa ala maskulinoa, eta, beraz, betebeharrak berek esleitzen baitituzte. Gizarteratze prozesuaren funtzioa eginkizun horien ikaskuntza bermatzea da.

Emakumeen eta gizonen eginkizunak femenitatea ala maskulinitatearen adierazpen moduan tipifikatuak dira, eta gaitasun pertsonalak idealaren arabera –femeninoa ala maskulinoa– mugatzen dituzten estereotipoak bihurtu arte normalizatzen dira. Genero eginkizunak hain sustraituak eta barneratuak izan ohi dira, ezberdintasun biologikoen adierazpenak direla pentsa daitekeela, nahiz eta hori egia ez izan.

Gizarteak eskema bikoitzekin funtzionatzen du, eta eskema horien arabera, hainbat gauza modu ezberdinean hierarkizatzen dira:

- ❑ Alde batetik, tradiziozko eginkizun femeninoa ugalketarena da, eta horrekin lotzen dira zenbait gaitasun (sentikortasunari, afektiboari eta besteri dagozkienak), eta beraz, “naturalizat” jotzen dugu heziketa eta sostengu afektibo zereginak emakumeek bete ditzaten. Gizarte mailan ikusezinak bihurtzen dira, eta eginkizun maskulinoek baino prestigio gutxiago dute.
- ❑ Bestalde, tradiziozko eginkizun maskulinoa ekoizpenarena da, eta horri lotzen zaizkio hainbat gaitasun (argitasuna, agresibitatea...), gizonen ekonomia antolatze eta mantentzeko balio dietenak. Gizartean oso ezagupen ona eta zentrala dute, eta eginkizun femeninoek baino balorazio hobea dute.

Genero eginkizunak

Genero eginkizunak: Gizartean gizonei ala emakumei esleitzen zaizkien eginkizun eta aukerak dira. Horren arabera bideratzen eta arautzen dira arlo guztiak.

Eginkizuna eta gizarte ekarpena

Gizona: EKOIZPENA
Emakumea: UGALKETA

Zereginak eta jarduerak

Gizona: EKONOMIA ANTOLATU
ETA MANTENTZEA
Emakumea: HEZIKETA ETA
SOSTENGU AFEKTIBOA

Gaitasunak eta portaerak

Gizona: ARGITASUNA,
AGRESIBITATEA, MANAKETA...
Emakumea: SENTIKORTASUNA,
ULERKORTASUNA,
SAKRIFIZIOA...

Prestigio eta garrantzia

Gizona: GIZARTEAN ETA
EKONOMIAN BOTEREA
ETA PRESTIGIOA.

Azken finean, genero eginkizunen eraikuntza prozesua 4 mailatan islatzen da:

- Gizona ala emakumea izateari gaitasunak, mugak eta portaerak lotzen zaizkio ➔ *Sentikortasuna emakumeentzat, buruzagitza gizonentzat.*
- Gaitasun eta muga horien arabera, jarduera eta adierazpen batzuk maskulino ala femeninotzat jotzen dira, eta beraz, jardueren izaera maskulino ala femeninoaren ideia sortzen da ➔ *Futbola mutilentzat da; dantza, aldiz, neskentzat*
- Prestigioa eta garrantzia gizarte eskeman: Modu ezberdinean baloratzen dira maskulinotzat ala femeninotzat jotzen diren jarduerak. Etxeko lanak eta aisaldi jarduerak tradizioan femeninotzat jotzen dira, eta tradizioan maskulinotzat jotzen diren jarduerak baino ezagupen gutxiago dute ➔ *Tradizio maskulinoa duten kirol jarduerak –futbola– ezagupen gehiago dute femeninotzat jotzen diren jarduera batzuek baino –goma edo soka jolasak–.*
- Jarduera bera ezberdin baloratzen da, gizonezkoek ala emakumeek egiten duten arabera ➔ *Kirol bera, emakumeek ala gizonek praktikatua.*


⇒ Genero estereotipoak:

Eginkizunak gizon eta emakumeen portaera manatzen duten sinismen edo estereotipo sozialak bihurtzen dira. Eginkizun ezberdinak esleitzeak berak gizon eta emakumeek egin dezaketena eta ez dezaketinari buruzko sinismenak sortu ditu, eta ondorioz, eginkizunak ere indartu egin dira. Maskulino-femenino bereizketa zorrotz horrek, egon daitezkeen kultur aldaerekin, estereotipoak gauzatzeko; estereotipo horiek pertsonen gaitasunak mugatzen dituzte, eta betebeharrak baldintzatzen dituzte ➔ *Neskek ez dute agresibitate aski lehiatzeko, eta mutilak ez dute ez ukipen ez trebetasun aski eskulan jakin batzuk egin ahal izateko.*

Gizonei esleitu ohi zaizkien estereotipoak emakumeek ez dituzten ezauzgarri definitzaileak dira, eta alderantziz. Gizonek berengan konfiantza dute, gogoetatsuak dira, independenteak, indibidualistak, menderatzaileak, agresiboak, aktiboak eta lehiakorak; eta, beraz, emakumeek konfiantza eskasa dute, sentikorak dira, dependenteak, ezegonkorak, mendekoak, pasiboak, solidarioak eta zuhurrak.

Genero estereotipoak:

Genero estereotipoak: gizon eta emakumeen portaera definitzen duten ideietan oinarritutako sinismenen multzoa; pertsonen sexuaren arabera, klise moduan inposatzen dira.




⇒ **Eragile gizarteratzaileak:**

Gizarteratze prozesuak eragile protagonista batzuk ditu, eta horiek portaera estandarren eredu eta balore transmisio azpi-sistema bihurtzen dira:

- **Familia:** Familiak dituen baliabide gizarteratzaileetako bat portaerak sustatzea ala zigortzea da. Gainera, aitak eta amak duten erreferentzia eginkizunak garrantzi handia du, genero nortasunak maskulinitate eta feminitate eredu moduan eraikitzeko.
- **Heziketa eragileak:** eragile horiek guztiek familiaren gizarteratze eginkizuna indartzen ahal dute, profesionalen jarreraren bitartez (irakasle, hezitzaile, animatzaile...), baita eduki, irudi, material didaktiko, testu liburu edota ikasleekiko harremanen bidez ere.
- **Komunikabideak:** hainbat kanalen bitartez (irudi, eduki, hizkera...), gizon eta emakumeen eredu estereotipatuak erakusten dira.
- **Berdinen edo baliokideen taldea:** eragile gizarteratzaile moduan garrantzi handia du, batez ere nerabezaroan. Izan ere, pertsonak eraikitzen diren etapa horretan bere garrantzia indartzen da, erreferentzia taldea baita, eta askotan beste eragile gizarteratzaileen aurka egiten baitu. Bere baliokideen genero nortasunaren oinarri egonkorrak dira.

Generoen gizarteratzea: eragile gizarteratzaile nagusien bitartez (familia, eskola, komunikabideak...), eginkizun, balore, eta portaera ezberdinak esleitzen zaizkie gizonei eta emakumei. Prozesu horren ondorioz, gizarte antolaketan hierarkia bat sortzen da emakume eta gizonen artean, eta hori ez da biologiaren ondorioa, ikaskuntzarena baizik.



1.3. Aukera berdintasunerako politikak, estrategiak eta esku harte motak

Aukera berdintasuna lortzea Europako Erkidegoko politikaren helburueta-ko bat bilakatu da, eta, beraz, estatu eta autonomia politikarena ere bai.

Aukera Berdintasunerako Politikak. Justizia eta erakunde esparrua

EUROPAKO BATASUNA	Amsterdamgo Ituna, 1997ko urriaren 2a Luxenburgoko Enpleguaren Gailurra, 1997ko azaroa Enplegurako arauak, Europako Batzordea, 1999 2000-2006 denboraldiko programei buruzko arauak, Egitura-Funtsak
ESTATU ESPAÑOLA	Konstituzio espainola, 14, 9.2 eta 35.1 artikulua Emakumearen Erakundearen sortzea, 1983
EAE	Autonomia-Estatutua, 9.2 eta 10.3 artikulua Emakunderen sortzea, 1988 Emakumeentzako Ekintza Positiboko III Plana Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako Lege Proiektua Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako Foru Planak Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako Udai-Planak

Emakumeen gizarte diskriminazio fenomenoaren tratatzeko modua aldatu egin da, eta ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuz, arazoaren zergatiak barnekoak izatekin kanpoko izatera pasatu dira. Aldaera hori esku hartze motetan ere gertatu da.


- Hasiere batean, arazoa **emakumearena** zela pentsatzen zen, eta emakumea, bere izaerarengatik, gizartean homogeneoa eta estigmatizatua zela pentsatzen zen.
- Ondoren, **taldea**, emakumeak, ikusten hasi ziren, eta uste zen berezko izaera zailtasunengatik ezin zutela gizartean parte hartu gizonekiko aukera berdintasunean.
- Geroago, emakumeek pairatzen duten diskriminazioa **historikoa eta soziala** zela onartu zuten, eta neurri orekatzaileak, **ekintza espezifikoak**, sortzen hasi ziren, diskriminazio horri aurre egiteko.

□ Azkenik, gaur egun, estrategia orokorragoa planteatzen ari da, ekintza positiboak baino haratago. Izan ere, **genero ikuspegia aldatzen duten politikak** programa guztietan sartzen dira, egitura ezberdintasunak gainditzeko aterabide moduan. Egungo aukera berdintasunerako politikak bi jarduera nagusi dituzte:

- *Ekintza Positiboak tresna moduan:* sustapen neurri horren helburua emakume eta gizonen arteko emaitza berdintasuna lortzea da, zuzeneko eta zeharkako diskriminazioak gaindituz.
- *Genero zeharkakotasuna estrategia moduan:* genero ikuspegia politika eta ekintza guztietan barneratzean datza, esparru eta etapa guztietan.

Estrategiak eta esku hartze motak

Emakumeen gizarte diskriminazio fenomenoak tratatzeko modua aldatu egin denez, arazo horri buruzko ikuspuntuak ere aldatu egin dira. Arazoaren zergatia barnekoa izatetik kanpoko izatera pasatu da.



Dena den, eskeman ikus daitekeenez, ekintza positiboa ekintza espezifiko da; orekatze helburuez gain, egiturazko helburuak ere dituen estrategia orokorreko tresna da. Ondoko eskeman ekintza espezifiko eta zeharkako politiken arteko ezberdintasunak irudikatzen dira:

EKINTZA ESPEZIFIKOAK ←		→ IKUSPEGI BARNERATUA
HELBURUA	<ul style="list-style-type: none"> ↳ EMAKUMEEEN PARTE HARTZEA ERAGOZTEN DUTEN OZTOPO ESPEZIFIKOAK GAINDITZEA 	<ul style="list-style-type: none"> ↳ GIZONEN ETA EMAKUMEEEN PARTE HARTZE OREKATUA ERAGOZTEN DUTEN OZTOPOAK GAINDITZEA ↳ AUKERA BERDINTASUNA KONTUAN HARTUZ, NEURRI OROKORRAK SORTZEA
NEURRI MOTA	<ul style="list-style-type: none"> ↳ EMAKUMEENTZAKO ↳ ESPEZIFIKOAK EMAKUMEETAN OINARRITUTAKO EKINTZA 	<ul style="list-style-type: none"> ↳ BERDINTASUNEN NEURRI ESPEZIFIKOAK ↳ GIZONEI EDOTA EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BERDINTASUN EKINTZAK EGIN AHAL IZATEKO NEURRI OROKORRAK
ZERGATIA	<ul style="list-style-type: none"> ↳ BEHAR PRAKTIKOAK 	<ul style="list-style-type: none"> ↳ BEHAR PRAKTIKOAK ↳ INTERES ESTRATEGIKOAK
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none"> ↳ NEURRI OROKORRETAN ALDAKETA GUTXI ↳ EMAKUMEEK GIZONEN BALDINTZETAN PARTE HARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNEI BURUZKO LANA ↳ FUNTZIO ALDAKETAK 	<ul style="list-style-type: none"> ↳ TALDE BATEN BEREZITASUNEI ERANTZUTEN DIEN EKINTZA ESPEZIFIKOAK BARNE HARTZEN DITU ↳ INGURUNEARI DAGOKIONEZ, EGITURA ALDATZEA, ETA ERAGILEEI ALDAKETA BEHARREZKO ETA ONURAGARRIA DELA OHARTARAZTEA ↳ EGITURA ALDAKETAK

Adibide gisa:


	Ekintza espezifikoa	Ikuspuntu barneratua
Helburua	↳ Leku aldaketa eskatzen duten aste bukarako jardueretan (ateraldiak) neska nerabeen parte hartzea bultzatzea	↳ Genero ikuspegia nerabeentzako ekipamenduetan barneratzea
Neurri mota	↳ Nerabeentzako espezifikoa ↳ Jarduera horietan neskek mutilek bezain bat parte hartzea eragozten duten oztopoak identifikatzea da ekintzaren muina, baita oztopo horiek gainditzen saiatzea, nesken inguruko neurriak martxan jarriz	↳ Neurri espezifikoko lan tresna moduan aplikatzen ahal dira, betiere ekipamenduen funtzionamendu orokorrari eragiten dioten helburuei erantzuten badiete. Mutil eta neskentzako neurri orokorrak ere planteatzen ahal dira.
Zergatiak	↳ Behar praktikoa: asteburuetak aisialdiko jarduera jakin batean parte hartzea bultzatzea	↳ Behar praktikoei erantzuteaz gain, interes estrategikoak ere bilatu behar dira: estereotipoak gainditzea (arlotzako publikoak, kirolaren praktika, gurasoen gehiegizko babesa gainditzea...)
Emaitzak	↳ Jarduera jakin batean parte hartzea bultzatzen da, baina ez dago egitura aldaketarik parte hartze orokorrari dagokionez (maila, maiztasuna, moduak...). Parte hartzera bultzatzea, baina ez ditu jarduerak beren beharretara egokitzen (mutilen baldintzetan parte hartzen dute)	↳ Neskei ala mutilei zuzendutako ekintza espezifikokoak sortzen dira (adb: jarduerak), baina horrekin batera, edo horien aurretik, sensibilizazioa, hezitzaileen prestaketa, ekipamenduen helburuetan barneratzea etab. ere kontuan hartzen dira.

1.4. Genero ikuspegia barneratzearen garrantzia

Esan bezala, genero ikuspegia aukera berdintasun politiken ikuspuntu zabalagoan sartzen da, eta bere helburua gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak neurtzea da, ezberdintasunak identifikatu eta gutxitzeko. Aukera berdintasunaren irizpideak kontuan hartzen dituen lanerako ikuspuntua da, beraz, eta hainbat arloko politika orokorretan genero ikuspegia sistematikoki barneratzea du helburu.

Nazioz gairik Erakundeek, Administrazioak eta Berdintasunaren aldeko Erakundeek parte hartu behar dute, baita ikerketa taldeek, presio taldeek eta komunikabideek ere. Helburua estrategia orokor bat eratzea da, gizonak eta emakumeek tratatu, begirune eta aukera berdinak edukiko dituztela bermatzeko.

Garrantzitsua da, errealitatea ezagutu eta ikertzeko baliozko tresna baita, eta beraz, errealitatean eragina eduki baitezake. Tradizioan ikusezina den guztia, eta femeninoarekin edo emakumeen behar, aukera eta ikuspuntuekin lotzen dena antzemateko baliagarria da, baina ez da ahantzi behar esparru maskulinoan ere ikertzea eta esku hartzea beharrezkoa dela. Argi dago, beraz, Berdintasun Politikak ez direla emakumeen kontua bakarrik; alderantziz, interes orokorrari erantzuten diote.



Azken finean, genero ikuspegia barneratzea diskriminazioa detektatzeko estrategia da, hainbat arloko ohitura, prozedura eta portaerak aldatzeko helburuarekin.

Beraz, genero ikuspegiak gizarte ikerketa aberasten ahal du, hainbat arlotan emakumeek eta gizonak betetzen dituzten genero eginkizunak aztertuz, baliabideen sarbidea, erabilera eta kontrola ikertuz, eta beharrak antzemanaz.

Beharrei dagokienez, eta genero ikuspegitik, behar praktikokoak eta behar estrategikoak bereizi egin behar dira:

- *Behar praktikokoak*: bizi kalitate hobera heltzea, baina gizartean zabaldutako genero eginkizunak aldatu gabe. Emakume eta gizonen arteko baliabide eta onura aukeren ezberdintasunetatik abiatuta ere, behar praktikoei erantzuteak ez luke eraginik horien oinarrian dauden genero eginkizunengan. Berehalako eskakizunei besterik ez lieke erantzungo ➤ *Neskei eta mutilen zuzendutako jarduerak proposatzea, adibidez, moda desfileak eta rol edo estrategia jolasak hurrenez hurren, beren gustuen arabera parte hartzea sustatzeko, baina genero estereotipoak gainditu gabe.*
- *Behar edo interes estrategikoak*: Horiei erantzuteak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna hobetuko luke, genero eginkizun eta estereotipoak gaindituz. Ezberdintasunak, gizartean eraikiak diren heinean, aldatzen ahal dira. Beraz, interes estrategikoen jomugak baliabideak kontrolatzea eta emakumeen gizarte posizioa hobetzea dira ➤ *Sentsibilizazio dinamikak sortzea, estereotipoak gainditzeko hasteko; tradizioan mutilen ala nesken jarduerak direnetan parte hartzea sustatzea, kirolean adibidez, formatuak egokituz eta neskentzako bereziki erakargarri bihurtuz, edo eskulanak mutilentzako erakargarriago eginaz. Helburua parte hartzea baino haratago doa. Izan ere, xedea gaitasun pertsonal berriak ahalbidetzea da, mutilen ala nesken genero eginkizunak ezarritako mugetatik at.*

Gizarte ikerketari ekarpenak

Genero ikuspegitik, hiru faktoreen azterketa kontuan hartzen da:

BEHARRAK

BEHAR PRAKTIKOAK:

Pertsonen bizi baldintzekin zerikusia dutenak. Behar praktikoak lantzeak emakumeen egoera hobetzen du, baina ez ditu beti ezberdintasunak murrizten.

BEHAR ESTRATEGIKOAK:

Gizarte hierarkiako posizioekin zerikusia dutenak. Interes estrategikoak lantzearen helburua emakumeen mendeko posizioa aldatzea da.

ZEREGINAK

Emakumeek eta gizonak betetzen dituzten zereginak arlo publiko eta pribatuan.

BALIABIDEAK

Emakumeek eta gizonak eskura dituzten baliabideak

2 Aukera berdintasuna nerabeentzako ekipamenduetan

2.1. Generoa nerabeen aisian eta astialdian

⇒ Genero gizarteratzea:

Lehen kapituluan, genero gizarateak nortasuna eraikitzeke duen garrantzia argitu dugu. Generoa esleitzeak nortasunaren eraketa eta bizi proiektua baldintzatzen ditu, bai haurtzaroan bai nerabezaroan, ereduakiko identifikazio eta atxikimendu prozesuaren bidez. Horrez gain, nortasunaren eraketak, nerabezaroan, istiluak ere sor ditzake.


Nortasun femeninoaren ezaugarria “ni-harremanekoa” da, afektiboari lotua. Nortasun maskulinoarena, aldiz, “ni-finalista” da, lorpena eta arrakastarekin lotua. Beraz, mutil nerabeak heldutasunera lan produktiboari esker heltzera prestatzen dira, eta neskek, ordea, ugalketara eta zainketa lanetara prestatzen dira. Lehen proiektu motak ekonomia independentziara darama, eta bigarrenak ordezkotako edo bigarren mailako herritartasunera: emakumeak dependentziara bultzatzen dira, eta espazio publikorako sarbide mugatua dute. Ondorioz, kon-tuan hartu behar da neska nerabea izatea ez dela mutil nerabea izatea bezala.

Mutil eta neska nerabeen artean faktore bereizgarriak sortzen diren heinean, nerabeen biziko hainbat arlotan islatzen dira, aisian eta astialdian barne. Horren kariatara, esan beharra dago ohikoagoa dela neska nerabeek astialdia bizikidetzarako espazio moduan ikustea, hau da, adiskidetasunerako eta ezagutzetarako; mutilek, berriz, astialdia jardueratzen jotzen dute. Askotan, emakumeentzat, astialdiaz gozatzea bigarren mailakoa da, eta beren parte hartzea ikusle izatera muga daiteke.

Nortasunaren, auto-identifikazioaren edo genero nortasun eraikuntzaren pixkanakako garapen horrek garrantzi berezia hartzen du bizitzako garai horretan; beraz, lana, genero ikuspegitik, ezberdintasunak gainditzeko tresna garrantzitsua izan daiteke.

Genero ikuspegia nerabeentzako ekipamenduen testuinguruan barneratuz, astialdi garaian muga horiek gainditzea da helburua. Izan ere, gizarteko genero eraikuntzaz geroztik, bai gizonen bai emakumeen garapenean inposatu egiten dira. Beraz, helburua astialdi espazioetatik genero estereotipoak kentzea da, aukerak murriztu egiten baitituzte.

Honela, gainera, ekipamenduek aldaketa ahalbidetuko lukete. Izan ere, berdintasunezko elkarrekintza soziala abiapuntutzat hartuta, hierarkiaren araberako genero harremanetatik aldentuko lirateke. Genero ikuspegia, beraz, tresna lagungarria izan daiteke, neska eta mutilen errealitate ezberdinetatik abiatuta egin daitekeen aldaketarako lanarentzat




⇒ **Genero estereotipoak:**

Teoriari buruzko kapituluari azaldu bezala, genero estereotipoek pentsamoldea modu sinplifikatu eratzten dute, eta horien arabera portatzen dira gizonak eta emakumeak; ondorioz, giza gaitasunak mugatu egiten dira.

Nerabezaroan genero estereotipoak islatzen dituzten aspektu nagusiak ondokoak dira:

- **Kanpoko mundua-barruko mundua:** Estereotipo maskulinoek, mutilak, haurtzarotik, arrakasta, independentzia eta nagusitasunera bideratzen dituzte, eta, beraz, kanpoko mundua kontrolatza; estereotipo femeninoek, aldiz, neskek kanpoko mundua ez kontrolatza bultzatzen dituzte, berei dagokiena barruko mundua baita, laguntasunarena eta pasibotasunarena ➤ *Estereotipo horiek espazioan islatzen dira. Izan ere, mutilek kontrolatu ohi dute espazioa. Gustuko dituzten jardueretan ere islatzen dira, baita horietan parte hartzeko moduan ere.*
- **Arrakasta-porroten gizarte esleipena:** mutilek barne faktoreei lotzen diete arrakasta (gaitasuna, esfortzua...), eta kanpo faktoreei porrotak (zorte txarra, bidegabekeria...). Neskek, ostera, arrakasta kanpo faktoreekin lotzen dute (zortea, besteen borondate ona), eta huts egiteak barne faktoreei (ezgaitasuna, trebezia falta...) ➤ *Beraz, porroa biziz gero, neskek ikaskuntza arazo handiagoak dituzte, beren gaitasun eta ahaletan konfiantza gutxiago baitute. Ondorioz, nesken iraunkortasuna, interesa eta parte hartzea murriztu daitezke konfiantza gutxi daukaten arloetan, eta horrek beren gaitasunak muga ditzake.*
- Neskek ez dira eroso sentitu ohi **egoera lehiakorretan**, batez ere mutilen aurka badira. Haurtzaroan eta nerabezaroan bereganatzen den lorpenarako motibazioa handiagoa dute mutilek neskek baino. ➤ *Testuinguru lehiakor horietan, ohikoa da neskek autoestimua gutxiago edukitzea.*
- Genero gizarteratze bereizgarri horrek eragin handia du **denboraren bizipenean**. Neska nerabeek astialdia harreman eta ezagutza espazio moduan bizi dute nagusiki, eta mutilek, aldiz, jarduera moduan. Gainera, astialdia gozatzea bigarren mailakoa da neskekentzat, eta beren parte hartzea pasibo edo ikusle izatera ere muga daiteke ➤ *Neska nerabeek mutilak futboleko jolasten begiratzen dituzte.*

- **Berdinen taldeak**, lehenago esan bezala, badu eragina astialdiaren ikuspuntuan, genero estereotipoak indartzen baititu, eta are gehiago taldeko parte hartzeak ez badira mistoak. ➔ *Erreferentzia taldeak material, jolas eta jarduera jakin batzuek erabiltzen dituen moduaren arabera, nerabeen zaletasunak antola eta alda daitezke. Adin horietan, batek maite duena bere taldekoek maite dutena da.*



Dena den, ekipamenduak bezalako espazioek, tradiziozko genero eginkizunei loturiko ezberdintasunak islatzeaz gain, zeregin aktiboa ere eduki dezakete, emakumeen posizio baztertua iraunaraziz ala aldatuz. Azken finean, astialdi espazioak, aldaketaren adierazle izateaz gain, aldaketa estrategia ere bihurtu daitezke.

⇒ Eginkizun eta estereotipoen transmisioa astialdian:

Interesgarria da jakitea zein diren eginkizunen **transmisio mekanismo** nagusiak astialdian, aldaketak egin ahal izateko:

- Ekipamenduetan bultzatzen diren **baloreak eta normak**: sexistak izan daitezke ala ez (estereotipoak iraunarazi ala baztertu ditzaketelako), eta emakume eta gizonen jarduerak hainbat modutan baloratu ditzakete.
- Hezitzaileen **jarrera eta portaerak**: aukera ezberdinak eman ditzakete sexuaren arabera, eta, beraz, aukera horien araberako jarrerak eduki ditzakete. Portaera horiek oso garrantzitsuak dira, hezitzaileak baloreen transmisioaren eragile, erreferentzia zuzen eta identifikazio ereduak baitira. Horren kariatara, aukeren araberako jarrera horiek eragin handia daukate hezitzaileen eta nerabeen arteko elkarrekintzarengan.
- **Nerabeen arteko elkarrekintza**: Berdintasunezko ala botere-mendekotasunezko harremanak, errespetuari ala genero bortizkeriari eusten dioten harremanen normalizazioa.
- **Ekipamenduen planifikazioa eta kudeaketa**:
 - Jardueren diseinua estereotipatua izatea ala ez, eta mutil eta nesken parte hartzea bereizgarria izatea ala ez.
 - Ekipamenduen espazioaren erabilera eta banaketa: espazioak neutroak ez direnez gero, bati ala besteari dedikatzeko modua garrantzitsua da, genero joerari eusteko ala gaina hartzeko orduan
 - Materialak: konnotazio sexistak eduki ditzakete ala ez, eta erabileak bereizgarriak izan daitezke ala ez. Banaketaz gain, jarduera moten arabera, garrantzitsua da kontuan hartzea diskriminazio banaketarik dagoenez.
 - Hizkuntzaren erabilera: sexista ala ez.
 - Giza baliabideen antolaketa: langileen banaketa estereotipoen araberakoa izatea ala ez, ekipamenduan betetzen dituzten betebehareei dagokienez.

Eginkizun eta estereotipoen transmisio mekanismoak




⇒ Aisian eta astialdian genero ezberdintasunak antzemateko zailtasunak:

Aisia genero estereotipoak gainditzeko testuinguru ona da; izan ere, bertan, aukeratzeko parada baitago. Hala ere, oraindik badaude nerabeen aisia-ko gustuak baldintzatzen dituzten faktoreak, eta aukera estereotipatuak egin ditzakete. Egun, ezberdintasun nagusia ez da neskek eta mutilek aisiaz gozatzeko ala ez, baizik eta aisia gozatzeko modua.

Hala ere, aisia eta astialdiak dituzten ezaugarri propioak direla-eta, arlo horretan eta nerabeekin jarduten duten langileentzat zaila izaten da neska eta mutilen arteko ezberdintasunak eta desorekak antzematea.

Aisian eta astialdian genero ezberdintasunak antzemateko zailtasunak:



Arlo horretan neska eta mutilen arteko ezberdintasunak antzematea zaila egiten duten ezaugarriak ondokoak izan daitezke:

- **“Aukera askeko” espazioa** denez, neskek eta mutilek modu librean aukeratzen dute zer egin eta norekin egon. Izan ere, aisia, ustez, arlo formalagoak baino urrunago dago estereotipo eta eginkizunengandik (eskola, lan merkatua, familia...). Ondorioz, arlo hori nahiko gutxi egituratua da, eta, beraz, nerabeek berek arauak erabakitzen ahal dituzte.
- **Presentzia berdina** da, mutil eta neskek astialdia eta espazioak banatzen baitituzte. Harremana eta bizikidetza hainbat eta handiagoak izan, orduan eta arrisku gutxiago egon daiteke sexistak deitu daitezkeen portaera ereduak iraunarazteko.
- Errealitate hori are indartsuagoa da **jarduera beretan parte hartzen dutelarik**, batez ere koadrila mistoak direla-eta; gainera, harremanak naturalagoak eta berezkoagoak dira. Badirudi esperientzia beretan parte hartzeak, berez, homogeneousasuna dakarrela, aukera, bizipen, esperientzia, portaera eta jarrerako arauetan.

- Hasiera batean, aisian, genero ezberdintasunak ez dira antzematen; eta antzematen direnean, **faktore pertsonalei** edo intimoen lotzen zaizkie. Ezaugarri pertsonalak ez dira erraz lotzen zergati sozialekin. Pertsonen arteko ezberdintasunak direla pentsatzen da, eta beraz, gizarte-ko genero eraikuntzarekiko harremana ez da ikusten, hau da, sexu-genero sistemarekikoa. Genero banaketa hori hain da barneratua, naturala balitz bezala jokatzeko dela.

Emakundek 2001ean argitaratutako *“Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian”* txostenean esaten dutenez, **“Bernizaren teoria”**ri jarraiki, berdintasunezko lorpenen dagokienez, ageriko aldaketak egon daitezke hainbat arlotan, jolas edo aisia espazioetan barne (adb: parte hartze espazio mistoak); eta, aldi berean, ezkutuko ezberdintasunak isilean egon daitezke (adb: *estereotipoak irauaraztea, bereizitako parte hartzeen bitartez*). Sexuen arteko itxurazko parekotasunak diskriminazio dinamika edo egiturazko ezberdintasunak irauarazten dituen egitura ezkuta dezake. Nerabeen artean gertatzen diren berdintasunaren aldeko aldaketak aztertzerakoan, ikerketa alderdi positiboetan besterik ez bada oinarritzen, neska nerabeak ezberdintasun egoerara bultzatzen dituzten bide immobilistak ezkuta edo saihestu daitezke. Beraz, “berdintasunaren berniz” hori ulerzea ezinbestekoa da, jolas espazioan diskriminazioa biziartzen duten zergatiak aztertu ahal izateko.

2.2. Nerabeentzako ekipamenduen errealitate soziala, genero ikuspegitik

Atal honetan, Gipuzkoako nerabeentzako ekipamenduen errealitateari begiratu labur bat emango diogu. Horretarako, lau ekipamendutako ardura-dunekin egindako sakoneko elkarrizketetan lortu dugun informazioa erabili dugu, baita horiei esker egin ahal izan dugun jarduera eta ebaluaketari buruzko dokumentu azterketa. Bestalde, bi adituri egindako elkarrizketei esker ere (ekipamendu, nerabezaro eta generoan adituak ziren) informazioa lortu dugu.

2.2.1. Abiapuntuko testuingurua:

Genero ikuspegia barneratzea ekipamenduentzako lan ildo estrategiko eta interesgarritzat daukagu. Zentzu horretan, alde batetik, barneratzea lagun dezaketen alderdiak ikusten ditugu, baina, bestalde, oztopoak ere badaude.

⇒ **Genero ikuspegia barneratzeko aspektu lagungarriak:**

- Ekipamenduetan lan egiten dutenenen **bokaziorako joera** handia: asko inplikatzan dira nerabeekin, eta horrek eragina eduki dezake, berdintasunaren aldeko lanaren mesedetan. Lehentasunezko gaia ez den arren, gai garrantzitsutzat jotzen dute ekipamenduen kalitatea hobetzeko.
- Gogo ona erakusten dute gai horretan sakontzeko eta prestaketa gehiago egiteko, genero ikuspegia barneratzeko tresnak eskuratzeko.
- Nahiz eta egoera horretan, aurreko orrian aurkeztu dugun “Bernizaren Teoria”n azaltzen dituzten prozesuak direla-eta, diskriminazio egoerak antzematea zaila izan, **ingurunearen ezagutza handia** da, eta horrek, genero ikuspegitik abiatuta, errazagoa egiten du diskriminazioak antzematea eta aztertzea.

⇒ **Genero ikuspegia barneratzeko zailtasunak eta oztopoak:**

- Badago genero diskriminazioari buruzko diskurtso orokor bat, baina, oro har, **jendeak ez du ekipamenduen jarduerengan eragina eduki dezakeen gaitzat hartzen:** normaltasunezko, eta, beraz, arazorik gabeko egoera ikusten dutenez, zailagoa zaie genero ikuspegitik lan egiteko beharra sentitzea.
- Genero arloa ezagutzen duten gehiegizko konfiantza egon daiteke, eta ondorioz, pentsa dezakete genero ikuspegia jadanik aplikatzen dutela: genero ikuspegia neska eta mutilen artean ezberdintasunik ez egitea bezala ulertzen dute, baina kontuan hartu gabe beharrezkoa dela ezberdintasunetatik abiatzea, jardueren bidez ezberdintasunak diskriminazio bihurtzea ekiditeko.
- **Ekipamenduen inguruko lanaren ezaugarriekin** lotutako beste zenbait aspektu: lan metodologiak sistematizatuak ez izatea, planifikatzeko, programatzeko eta ebaluatzeko lan falta, langileen txandaketa...

Langileen hautemateak

Alderdi lagungarriak



- Bokaziozko langileak
- Gai garrantzitsuztat jotzen da, ekipamenduen kalitatea hobetzeko.
- Gaia sakontzeko eta prestaketarako gogo ona.
- Langileek ingurunea oso ongi ezagutzen dutenez, diskriminazioak antzemateko erraztasunak.

Zailtasunak



- Arlo horretan diskriminazioak antzemateko zailtasunak
- Genero teoriari buruz aurretiazko ezagutzak beharrezkoak
- Ekipamenduen inguruko lanaren ezaugarriak: sistematizazio falta, planifikatzeko denbora falta, langileen txandaketa...

Ezinbestekoa da hasieratik argi edukitzea genero ikuspegia barneratzea ez dela inposaketa bat. Eta kontzientzia hartze hori zuzenki lotua da gaiari buruzko ezagutza eta prestaketa edukitzearekin.

2.2.2. Lan motak eta metodoak:

Hainbat ekipamendutako lan metodologietan alderdi komunak daude. Horiek agerian uzten dute, genero ikuspegia barneratzea planteatzerakoan, lan prozeduren sistematizazio falta testuinguruko osagai garrantzitsua dela.

⇒ **Beharren diagnostikoa**

Gabezia horren adierazle bat ikus daiteke beharren diagnostikoa egitera-koan. Gehienetan, beharren diagnostiko sakon bakarra ekipamendua mar-txan jartzerakoan egin dute. Behin ekipamenduak abiatuak direnean, beha-rrak antzematea modu informala goan eta gutxi egituratuta egin ohi da.

Beraz, bi une garrantzitsu daude diagnostikoan:

- Hornigaia martxan jartzerakoan.

- Beharrak antzematekorakoan, ekipamenduaren jarduera hasi eta gero: erabiltzaileen beharrak definitzeko, informazioa bi iturritan bilatzen da nagusiki:
 - Hezitzaile taldearen beraren hautemateak eta esperientzia.
 - Nerabeek berek adierazitako eskakizunak eta beharrak. Bigarren hipotesi horretan, eskakizun horiek biltzeko modua, nagusiki, zuzeneko galdeketa da (galderak egiten dizkiete, programatutako jarduerari buruzko iritziak biltzen dituzte, haiekin hitz egiten dute...), ala, batzuetan, iradokizun kutxa bat ezartzen dute.

Kontuan hartuta eskakizunak biltzeko bi modu nagusiak alde batetik hezitzaileen hautemateak eta esperientzia, eta bestetik erabiltzaileek adierazitako eskakizunak direla, pentsatzekoa da genero joerak egon daitezkeela informazioa jasotzerakoan. Izan ere, geroago esango dugun bezala, nerabe askok zailtasunak dituzte beren beharrak adierazteko eta transmititzeko.

Bestalde, adierazten dituzten eskakizunak ekipamendua antzematen duten moduaren araberakoak izaten dira. Batzuek bertan egoteko toki moduan hartzen dute, eta besteek, aldiz, jarduerak egiteko lekutat daukate.

Datu horietatik abiatuta, hipotesia bat planteatu daiteke: hezitzaileen hautemateek eskakizun eta beharrak identifikatzeko garrantzi handia dute. Baina, kontuan hartuta mutilek presentzia handiagoa, ikusgarriagoa eta iraunkoragoa erakusten dutela, eta jakinez baldintza horiek hezitzaileekiko konfiantzazko harreman estuagoak errazten dituztela, mutilen eskakizunak eta beharrak gehiago hartzen dira kontuan neskenak baino.

Adina kontuan hartzen dute beharrak identifikatzeko eta jardueren diseinua egokitzeko, baina ez dirudi, ostera, sexua kontuan hartzen dutenik, mekanismoak, eskakizun eta behar horiek antzemateko kanalak eta interpretazio moduak ezartzeko orduan.

⇒ **Jardueren programazioa**

Jardueren programazioak, beharren diagnostikoaren azterketan esan bezala, hein handi batean, aurreko urteetan lortutako esperientziari erantzuten dio. Esperientzia hori jardueren arrakastan oinarritzen da, eta hezitzaileen hautemateak garrantzi handia du horretan. Haatik, nerabeen eskakizunei ere

egokitu behar zaie. Hori dela-eta, mutil eta nesken behar ezberdinak identifikatzea garrantzitsua da, ekipamendua erabiliko duten pertsona guztien interesei erantzungo dien jarduera programazioa erabakitzeko.

Programazio horiek baldintzatzen dituen testuinguruko osagai bat, jardueren diseinua eta programazioari buruz lan egiteko denbora falta da.

⇒ Ebaluaketak

Ebaluaketak kuantitatiboak dira gehienbat, eta jardueretan egotea eta parte hartzea dute muina nagusia. Sexuaren arabera segimendu kuantitatiboak egiten denean ere, ez da parte hartze eraginkorra neurtzen sexuaren arabera.

Kontua ez da bakarrik sexuaren arabera banakako datuak biltzea, baizik eta horiek modu ezberdinean aztertzea, kontuan hartuz neska eta mutilen abiapuntuko testuinguruak, baita nerabeen arteko genero harremanak ere.

Generoaren arabera ebaluaketarentzat balioko luketen alderdi kualitatiboak bigarren mailan uzten dira. Sexua eta ebaluatzen ahal diren beste alderdi batzuk uztartzen dituen genero adierazlerik ez da erabiltzen (jarduera mota, parte hartzeko erak, helburuak betetzea...).

Lan testuingurua

BEHARREN DIAGNOSTIKOA

Normalean, beharren diagnostiko sistematizatu bakarra ekipamendua martxan jartzen den urtean egiten da. Ondoren, diagnostikoen oinarri nagusiak hauek dira:

- ⇒ Hezitzaileen hautemateak, irizpideak eta esperientzia
- ⇒ Hornigaia erabiltzen dutenek adierazitako eskakizunak

JARDUEREN PROGRAMAZIOA

Ez da denbora aski gordetzen programaziorako. Jardueren programazioak bi motakoak dira oro har:

- ⇒ Antzemandako beharren arabera eta aurreko hautemate eta esperientzien arabera programatzen diren jarduerak

EBALUAKETAK

Ebaluaketetan ere denbora falta egoten da:

- ⇒ Parte hartze orokorrari buruzko datu kuantitatiboak biltzen dira, sexuaren arabera banatuta
- ⇒ Sexua ez da uztartzen jarduera mota, parte hartzeko era, helburuak betetzea eta abarrekin, hau da, ebaluaketarako erabiltzen diren adierazleekin
- ⇒ Eskaintzen dituzten jarduerak eta zerbitzuen eragina aztertzea ahalbidetuko lukeen informazioa biltzeko ebaluaketa kualitatiboak ez dira ohikoak

2.2.3. Neska eta mutil nerabeen parte hartzearen alderdi bereizgarriak:

⇒ Parte hartzea:

Elkarrizketetan lortutako informazioak ez digu ezagutzera ematen mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa den ala ez; baina, halere, badirudi mutilek iraunkortasun eta fideltasun gehiago erakusten dutela, eta nesken parte hartzea puntualagoa dela.

Oro har, badirudi neskek parte hartzeko hezitzaileek esfortzu bat egin behar dutela, segurtasun eza eta lotsa gainditzen laguntzeko.

Mutilak aktiboagoak izan ohi dira, neskek baino ekimen gehiago eta lotsa gutxiago dute.

Neska eta mutil nerabeen arteko faktore bereizgarri nagusiak parte hartzearekin zerikusia dute, hau da, *adina, jardueren tipologia eta parte hartzeko eraren* araberakoak dira.

Aldagai horien arabera, sexuen arteko parte hartze bereizgarriak deskribatuko ditugu hemen:

Adina

Orokorrean, erran daiteke parte hartze maila altuena 12 eta 15 urte artean egoten dela, nahiz eta, maiz, 17 edo 18 urte arte luzatu. Halere, genero azterketaren ikuspuntutik, parte hartze mailak ez dira homogeneoak:

- Neskek gaztelekuak mutilek baino gazteago uzten dituzte. 14 urtetik gora, parte hartzeak behera egiten du pixkanaka, mutilenak baino azkarrago. Beren adineko mutilekin espazioak banatzea zaila egiten zaie, eta are zailagoa mutil gazteagoekin. Beren parte hartzea gero eta irregularragoa bihurtzen da, gero eta gustu gutxiagorekin joaten dira, eta azkenean utzi egiten dute. Esan beharra dago adin horietan hasten direla “*bizi antolatua eta astialdia gero eta okupatuagoa*” edukitzen. Batzuetan, koadrilarekin joaten dira, baina beste helburu batekin, hau da, mutilekiko laguntasun edota sexu harremanek bultzatuta, “*gustuko dituzten mutilak ikustera etortzen dira*”; beraz, parte hartzea pasibo-

goa da, eta batzuetan, lokaletik kanpo egotera ere iristen dira. Parte hartze mota horrek “ni harremanetakoa”-rekin bat egiten du, zentroa beste pertsona baita (mutila); horren ondorioz, jarrera pasiboa dute, eta beren burua kanporatzen dute espaziotik.

- Parte hartze ezberdin horren arrazoi nagusia da neskek eta mutilek heldutasunera heltzeko erritmo ezberdinak dituztela. Esaterako, neskek erantzukizun gehiago hartzen dute beregan, eta mutil zaharragoekin harremanetan jartzen dira; askotan, ekipamenduetan jada parte hartzen ez duten mutilekin. Badirudi, gainera, nesken gizarte aukerak exijentzia gehiago dutela ikasketei dagokienez, eta mutilek askatasun gehiago dutela. Horrekin lotuta, mutilek bizi sozial garatuagoa dute, eta neskek, etapa batzuetan, arlo akademiko-profesionalean gehiago sartzen dira, eta bizi antolatuagoak dituzte.
- Zentzu horretan, pentsa daiteke ez dagoela adin horretako nesken behar espezifikoerantzuten dien egiturarik, hau da, espazio propioak eta egokitutako jarduera eta baliabideak proposatzen dituenik.

Jarduera

- Ekipamenduetako jardueren arabera ezberdintasunei dagokienez, oro har, mutilek kirol edo jolas lehiakorretan parte hartzen dute gehien, eta neskek interes gehiago dute eskulaneko jarduera edo tailerrentzat.
- Horren kariatara, ohartarazi behar da neskek gehiago parte hartzen dutela tutoreekin egindako edo programatutako jardueretan; mutilek, aldiz, programatuak ez diren jarduera espontaneoetan, eta, askotan, beren burua kudeatuz.
- Badirudi nesken parte hartzea kanpoko jardueretan (aste bukaerako ateraldiak) zailagoa edo murriztagoa dela mutilena baino.
- Egiaztatu dugu batzuetan neskei jarduera estereotipatuak proposatzen dizkietela. Bi arrazoik azaltzen dute hori: alde batetik, nesken berehalako eskakizunei erantzuten diete, eta bestalde, nesken parte hartze urria ikusten dutenez, aterabide eroso da haientzat, beren gustuen arabera baitira.

Parte hartzeko era:

Ekipamenduen espazioan aisia ohitura bereizgarriak islatzen dituen diagnostiko osagai bat espazio horietan parte hartzeko modua da (nola):

- Gutxitan hurbiltzen dira neskak beren kabuz ekipamenduetara; mutilak, berriz, askotan. Neskak, beren kabuz joatekotan, helburu argi batekin joaten dira: programatutako jarduera jakin batean parte hartzeko, ala beren lagunak aurkitzeko. Gehienetan, lagunak aurkitzen ez dituztelarik, ez dira gelditzen. Mutilekin ez da gauza bera gertatzen: askotan bakarrik bertaratzen dira, arrazoi argirik gabe, *“han egoteko”* besterik ez. Neskek taldean parte hartu ohi dute.
- Nerabezaro gaztean (12 urtetik gora), neska taldeak alde batetik eta mutil taldeak bestetik egotea oso ohikoa da. Geroago, parte hartze mistoak egon daitezke ekipamenduetan, baina horrek ez du beti esan nahi estereotipatuak ez direnik, ez eta generoko hierarkia harremanak ezabatzen direnik ere. Hori praktikan islatu egiten da. Izan ere, oro har, nesken eta mutilen arteko harremanak ez dira guztiz naturalak, eta erakartze-baztertzeko harremanak dituzte, konnotazio oso estereotipatuekin. Testuinguru horretan, ekipamendua harreman kode horien aldaketa posible egiten duen espazioa bihurtu daiteke.
- Talde mailan ere, mutilak fidelagoak dira ekipamenduetara joaterakotan, neska taldeak baino.
- Horrek hezitzaileen eta nerabeen arteko harremana bidera dezake. Beraz, batzuetan, mutilekiko harremana konfiantza handiagokoa bihurtu daiteke, neskak baino maizago joaten baitira bakarrik. Hala ere, eta hor dago paradoxa, badirudi neskek arreta gehiago eskatzen dutela, beren parte hartzea bultzatzea beharrezkoa baita.
- Beste hipotesia baten arabera, mutilei arreta gehiago ematen ahal zaie, konturatu gabe, fidelagoak direlako, eta nabarmenago parte hartzen dutelako (espazio nagusiak, agerikoak, zaratatsuak...).
- Mutilen parte hartzea anitzagoa da, eta arratsalde bakar batean jarduera bat baino gehiago egin dezakete. Ostera, neskak jarduera bakar batean zentratu ohi dira.

⇒ **Espazioen erabilpena:**


- Espazio nagusiak mutilek okupatu ohi dituzte, eta neskak espazio konkretu eta bilduetan biltzen dira, lasai egon ahal izateko; horiek, gehienetan, ez dira ekipamenduetako espazio nagusiak (bainugelak, mahaia, gelak, txokoak...).
- Mutilen parte hartzea sakabanatuagoa eta aktiboagoa da; espazio guztietan egon ohi dira, tokiz toki ibiliz. Neskak gutxiago sakabanatzen direnez jarduerentzat, beren espazioaren erabilera ez da hain mugikorra.
- Beraz, pentsa daiteke espazioak mutilen ikuspuntutik diseinatuak direla, mutilen parte hartzea nagusi duten jarduera eta jolasak ekipamenduen espazio nagusietan ezartzen baitira (ping-pong, mahai-futbola...)

⇒ **Materialen erabilera:**

Material batzuen erabileran alderdi bereizgarriak ikus daitezke:

- Erabilera bereizgarriak materialaren arabera:
 - Mahaiko jolasak (xakea, kartak, damak...) mutilek erabiltzen dituzte gehien.
 - Mahai-fulbola eta ping-ponga: mutilek neskek baino gehiago erabiltzen dituzte.
- Erabilera bereizgarriak material edo baliabide beretan:
 - Kontsolak: mutilek jolasteko erabiltzen dituzte, eta neskek karaokeak egiteko.
 - Aldizkariak: neskenak nerabeentzakoak izan ohi dira, mutilenak, aldiz, motoei buruzkoak.
 - Ordenagailuaren erabilera: mutilek jolasteko erabiltzen dute, eta neskek txateatzeko.
 - Bideoa: mutilek, bideoak begiratzeko baino, egoteko erabiltzen dute, eta neskek aldiz, egoteko, bideoak begiratzeko eta dantzatzeko.

Mutil eta nesken parte hartzearen alderdi bereizgarriak



Laburpen gisa, Gipuzkoako nerabe ekipamenduen hurbilketa honetan, ikus daiteke mutil eta nesken parte hartzean ezberdintasunak badirela, jadanik sakondu dugun generoaren gizarteratzearen prozesuak sortutako balore hierarkiaren ondorioz. Genero eginkizunak esleitzeak, eta beraz, aisian eta astialdian hierarkia sortzeak, pasarte honetan deskribatu ditugun alderdi bereizgarriak sortzen ditu.

Neskei dagokienez, taldeko parte hartzea banakakoari nagusitzen zaio; jarduera programatuetan eta sortzaileagoetan parte hartzen dute, eta heldutasun prozesuan goizago sartzen dira; beraz, mutilek baino lehenago uzten dituzte ekipamenduak.

Mutilei dagokienez, parte hartzeak banakakoak ala taldekoak izan daitezke; gutxi egituratutako jardueretan parte hartzen dute, espontaneoagoetan, eta dinamismo gehiago behar dute (kirola...). Baliabide hori neskek baino beranduago uzten dute.

Gizarteratze prozesu ezberdinen islak jolas arloan



2.3. Nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzea

2.3.1. Sarrera:

Genero ikuspegia nerabeentzako ekipamenduen diseinu, kudeaketa eta ebaluaketara aplikatzea egokia da, gida honetan adierazitako guztia jakinda.

Genero Teoriak sexu-genero sistemaren zergatiak eta ondorioak agerian uzten ditu, eta nerabeei buruzko ikerketek nerabezaroaren garrantzia erakusten dute, heldutasunerako bideko etapa den heinean, nortasunak eraikitze eta pertsonak heldu egiteko. Azkenik, Gipuzkoako nerabeentzako ekipamenduen errealitatea begiratuz, testuinguru horretan genero ikuspegia barneratzea beharrezkoa dela ondorioztatu dezakegu.

Dena den, nerabeentzako ekipamenduen errealitatea konkretuago lantzeko, eta genero ikuspegia bertan barneratzeko, nerabeentzako ekipamenduen definiziotik bertatik abiatu behar da. Definizio hori Gipuzkoako Foru-Aldundiko Gazteria Zerbitzuak ezartzen du, eta genero ikuspegia eta aukera berdintasuna lan ildo estrategiko bezala planteatzen du.

2.3.2. Ekipamenduaren definizioa:

G.F.Ako gazte politikaren helburu nagusia *ume, nerabe eta gazteen burujabetze, heldutasunera heltze eta hezte prozesua erraztea* da.

Helburu hori lortzeko, besteren artean, eragile gazteak koordinatzen dituen arreta zerbitzu bat sortu dute. Bertan, Udalaren ardurapean, informazioa, aisia eta hezkuntza ez formalak proposatzen dituzte, eta politika horren gauzatze garrantzitsua dira. Ekipamendu horiek, azken finean, hainbat zerbitzu, programa eta jarduera garatzen dituzten azpiegiturak dira.

⇒ **Norentzat**

Ekipamendu horien xede-publikoa **nerabeak** dira.

Beraz, ekipamenduen beharra justifikatu behar denean, **nerabezaroaren ezaugarri propioetara** jo behar da. Baina gogoan eduki behar da ezaugarri horiek guztiek neska eta mutil nerabeen arteko genero ezberdintasunak konstante hartu behar dituztela:

- Beraz, **gorputzaren aldaketak** eta gorputzak bizi dituen hautemateak sexu ezberdintasunekin uztartuak dira, eta, beraz, genero ezberdintasunekin, sexu-generoaren bitartez bien arteko harremana sortzen baita.
- **Dolu** garaia deritzona ere genero ikuspegitik aztertu behar litzateke, harreman zuzena duelako nortasunarekin, sexuaren arabera estereotipatutako haur eginkizunak uztearekin, eta nortasun berrietara pasatzearekin. Azken horiek ere genero eginkizunen arabekoak izan daitezke, nerabezaro-gaztetasun etapan. Hala izanez gero, feminitate eta maskulinitate mota batera bideratzen dira. Genero ikuspegia aplikatzea baligarria izan daiteke, prozesu horiek agerian uzteko, eta heziketa lanaren bidez ekiditeko, nortasunaren definizioa diskriminatzailea izan ez dadin.
- **Helduetaz duten ikuspuntua aldatzea** – guraso ala ez–: nerabezarora arte, helduek garrantzi handia dute baloreak transmititzeko, eta baliteke genero eginkizunak transmisio horren bitartez indartuak izatea. Hala eta guztiz ere, etapa horretan gizarte eragile moduan protagonismo handiena hartzen duena berdinen taldea da, eta bertan eginkizunak indartu egiten dira. Hain zuzen, aldaketak eta erreferentzia kolektibo berrien bilaketak bizi dituzten garai horretan nerabeekin lan egitea funtsezkoa da: pertsonak heldutasun osora heltzera laguntzeko aukera izan daiteke, genero estereotipoak gaindituz. Genero hierarkiaren arabeko harreman posibleak kontuan hartu behar dira, bai taldean bertan bai taldetik kanpo.
- Generoaren ikuspegitik, beren burua irudikatzeko gaitasuna ematen dien **pentsamendu abstraktuak** ez ditu irudikapen horretan eragina eduki dezaketen genero baldintzak alboratu behar. Pentsamendu abstraktuaren oinarriak desadostasuna, kritika eta nortasunaren deuseztatetik abiatzen diren hipotesia berriak dira. Helburua, ondoren, nortasuna berreraikitzea da. Beraz, beharrezkoa da neska eta mutil nerabeen arteko alderdi bereizgarriak begiratzea. Haurtzaroen eraikitako nortasuna deuseztatzen dute, ikasitakoa asko kritikatu, eta nortasun berri bat bilatzen dute. Trantsizio bide horretan, hezkuntza tresna eraldatzaile baligarriak ekar daitezke, diskriminazio egoerei gaina hartu ahal izateko, hain zuzen.

- ❑ Pentsamendu horri gehitzen zaizkio, lehenago esan bezala, **nortasun berrien bilaketa**, eta ekipamenduak pertsona osoak eraikitzeko helburua duten baliabide sozioedukatiboak bezala planteatzea. Testuinguru horretan, genero ikuspegitik autonomia pertsonalari buruz lan egitea interesgarria da, neska eta mutilen arteko alderdi bereizgarriengan eragina eduki baitezake. Gogoan eduki behar da nesken nortasun eraikuntzak beste sexuarekiko mendekotasun ezaugarriak daramatzala. Beraz, lanak bikoitza izan behar du, helduekiko eta mutilekiko autonomia sustatu behar baitu.

Aisiaren bizipenak ere, ikuspegi teoriko orokorretik jadanik ikusi dugun bezala, alderdi bereizgarriak ditu, generoaren gizarte eraikuntzan oinarritutako alderdi subjektibo eta sinbolikoekin harremanetan den heinean.

Definizioan, bizipen horrekin lotutako ezaugarri zerrenda bat aipatzen da:

- ❑ Jadanik deskribatu dugunez, segurtasun ezaren, atsekabearen eta dependentzia afektiboaren eraginak ezberdinak dira mutilengan eta neskenengan.
- ❑ Helduekiko oposaketa harremanak ekipamenduetako hezitzaileekiko harremanak baldintzatzen ditu. Hori dela-eta, ezinbestekoa da kontuan hartzea genero faktore batzuk badaudela. Horiek zailagoak egiten dituzte beste sexuko helduekiko harremanak, gehiago identifikatzen baitira sexu bereko helduekin.
- ❑ Beste pertsonetikiko dependentzia afektiboak badu eragina berdinen taldeak daukan garrantzian, bereziki generoen arteko hierarkia harremanetan egoten diren dependentzia afektiboak gainditzeko.
- ❑ Ekipamenduen definiziotik bertatik ematen diren ezkutuko balore sinbolikoek, esperimendatzeko beharrak adibidez, harreman estua dute genero ezaugarriekin. Baieztatu dugun bezala, generoaren arabera nortasun ezaugarriek neskei gustu gutxiago ematen diete esperimenduziorako, hori mutilen ezaugarria baita, eta mutilei esleitzen baitzaie abenturarako gustu handiagoa.
- ❑ Astialdiak nortasunaren eraikuntzan daukan garrantziak berresten du gure abiapuntuko hipotesia: genero ikuspegitik lan egitea egokia da, berdintasuna lortzeko tresna izan daitekeelako, generoak banatuko ez duen nortasun eraikuntza indartuz.

Definizioko beste ezaugarri nagusi bat da nerabeentzako ekipamenduak **espazio irekiak** izan behar direla, hainbat adinetako pertsonen sarbidea bermatzeko, eta beren beharrei erantzuteko. Beraz, genero ikuspegitik nabarmendu behar da:

- ❑ Aukera berdintasunak genero ikuspegitik lan egitea dakarrela derrigorez, diskriminazio egoerak antzemateko eta zuzentzeko.
- ❑ Beharren arabera, adin aldagaiak nerabezaroan azpikategoriak banatzen dituen bezala, sexu aldagaia kontuan hartu behar dela, genero ezberdintasunak agerian uzteko.

⇒ **Zergatik**

Ekipamendu mota horren beharra sortzen duten arrazoiak aipatzerakoan, honakoak nabarmentzen dira:

- ❑ Antzemandako beharrak: ezinbestekoa da ama eta aitek eduki ditzaketen behar bereizgarriak antzematea, baita, era berean, gida honetako beste pasarte batzuetan esan bezala, neska eta mutil nerabeek eduki ditzaketenak ere.
- ❑ Definizioan aipatu ditugun behar normatiboei dagokienez, aisia eskaintzari gehitu behar litzazkioke kultura patriarkalari loturikoak (botere harremanak, genero bortizkeria...), aukera berdintasunaren parametroen arabera gertatzen ari diren aldaketez gain (etxeko betebeharrak banatzea, lan merkatuaz gain emakumeari irekitako beste espazio publikoak, genero eginkizunen aldaketa...).
- ❑ Ekipamenduetan administrazioak parte hartzeko beharrari dagokionez, aukera berdintasuna lortzeko, erakundeen esku hartze espezifikoak barneratu behar litzateke. Ekipamenduari ematen zaion hezkuntza izaeraz gain, hedadura orokorrago bat ematen ahal zaio, elkar-hezkuntzako parametroen arabera. Kontuan hartzen diren arrisku faktoreez gainera, generoarekin lotutako batzuk gehitu behar dira (adb: genero bortizkeria, desiratuak ez diren haurdunaldiak...).

⇒ Zertarako

Ekipamenduekin lortu nahi ditugun **helburuetan** bertan, genero ikuspegia barneratzeko garrantzia indartzen duten hainbat alderdi daude.

- ❑ Aisian alternatibak proposatzea. Ekipamenduen eskaintzak hiru ezaugarri nagusi ditu: *hezigarria*, *berdintasunezkoa eta barneratzailea* izatea. Ondorioz, genero ikuspegitik lan egitea ezinbestekoa da berdintasunera heltzeko.
- ❑ Informazioa zabaltzea, neska eta mutilen behar espezifikoak kontuan hartuko dituen bizi proiektu propioa eta autonomia bideratzeko.
- ❑ Jarrera aktiboak sustatzea (adierazpena, ekintza eta parte hartzea). Izan ere, ikusitako ezberdintasunak direla-eta, genero ikuspuntu horrek baliagarria dirudi nesken jarrera aktiboak bereziki sustatzeko. Nerabeei beren gaitasunak ezagutaraziz esperientzia ezberdinak proposatu ahal izateko, beren genero nortasunaren ezaugarriak ezagutu behar dira.
- ❑ Autonomia modu bereizgarrian lantzea neskekin, azaldu ditugun zailtasun handiagoei aurre egiteko.

Helburu horiek betetzeko (sexu heziketa, alternatibak, sustatzea, parte hartzea) planteatutako **espazio** orotan, berdintasuna lortzeko balio duten baloreak lantzeko baldintzak sor daitezke.

⇒ Nola

Hemen, ekipamenduen programazioaren ezaugarri nagusiak edukiko ditugu hizpide, genero ikuspegiaren beharra indartzen baitute:

- ❑ Eskaintzaren erantzukizuna publikoa da
- ❑ Programazio horrek lan ildo nagusiak aztertu behar ditu, genero ikuspegia barne, dokumentuan azaldu bezala
- ❑ Hezkuntza eskaintza den heinean, heldutasunera heltzeko laguntza eman behar du.

- Eskaintza hori, gainera, Udal baliabide sare batean sartzen da: genero ikuspegitik, beharrezkoa da jakitea, Udal mailan, berdintasuna lortzeko beste ekimenak zein diren (emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren aldeko Udal Planak, Emakume Gazteen Elkarteak, ...)



Laburbilduz, nerabeentzako ekipamenduen definiziotik abiatuta, eta nor-tasuna haurtzaroan eta nerabezaroan garatzen dela kontuan edukita, aisiaren eta nerabeentzako ekipamenduen ikuspegitik lan egitea ezinbestekoa da genero estereotipoak gainditu ahal izateko.

Praktikan, lan espezifiko egin behar da, genero ikuspegitik neska eta mutilen arteko ezberdintasunak kontzienteak izan daitezen. Horren helburua, Gaztelekua bezalako espazio soziokomunikatibo eta edukatiboetan lan egitea da, ezberdintasun horiek murriztu, alden du edo gainditzeko. Neskei dagokien ez, lan espezifiko egin behar da, berez berdintasun egoeran egon daitezen horrelako espazioetan, eta, horren ondorioz, proposatzen dizkieten jarduera eta zerbitzuetan ere. Honela, beren genero eginkizunak gaindituko dituzte, eta, egoera zailetan izanez gero, laguntza edukiko dute.

3 Nerabeentzako ekipamenduetan genero ikuspegia barneratzeko irizpideak

Kapitulu honetan, nerabeentzako ekipamenduetan (Gaztelekuak) genero ikuspegia barneratzeko kontuan hartu behar diren zenbait ezaugarri proposatuko ditugu:

3.1. Diseinuan eta plangintzan

Etapu horretan egituratzen eta gauzatzen dira ekipamenduko jarduera ildoak. Ekipamenduaren beraren eta helburuak lortzeko garatuko den prozesuaren diseinua da erabakitzen.

⇒ Irizpideak:


1. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da ekipamendua kudeatzen duen erakundeak eta hezitzaileek aukera berdintasunaren aldeko konpromisoa har dezaten. Konpromiso hori honela gauza daiteke:
 - ⇒ Aukera berdintasunaren aldeko konpromisoa helburu orokortzat planteatzea ? ⇒ *Gaztelekuen kasu propioan, jakinez Udalak kudeatutako ekipamenduak direla, konpromiso hori aukera berdintasunaren alde bertako erakundeek egiten duten lanarekin uztartua egon daiteke (emakume eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Planak). Hori dela-eta, Udal mailan ekipamenduen ardura duten pertsonen konpromisoa planteatu behar da, eta, azkenik, azpikontraturiko erakunde kudeatzaileena eta lan taldearena ere. Erakunde kudeatzaileen konpromisoa garrantzitsua da, hezitzaileek ildo horretan lan egiteko behar dituzten baldintzak ezar-*

tzeko ezinbestekoa baita (baliabideak et denbora). Erakundeak ez badu konpromisorik hartzen, hezitzaileei oso zaila egingo zaie norabide horretan lan egitea.

- *Aukera berdintasuna lan egiteko modua bezala barneratzea, ikuspegi oso eta koordinatuaren bitartez ➤ Praktikan, genero ikuspegia ekipamenduaren egitura antolatzailean barneratzean datza, bere programa, zerbitzu eta jarduera guztietan. Hots, neska eta mutilen egoerak, lehentasunak eta beharrak sistematikoki barneratu behar dira. Honela, ekintza puntualetan mugatze-ko ordez, berdintasun printzipioa ekintza horien guztien ardatz antolatzailea bilakatuko da.*
 - *Genero estereotipo diskriminatzaileak alde batera uzteko konpromisoa hartzea ➤ Helburu eraginkor bat aukeratu behar da; hau da, genero estereotipoen aurka egiteko konpromisoa erakustea baino gehiago izan behar da: konpromiso hori ekintza konkretuetan gauzatu behar da. Adibidez, gizonezko hezitzaileek tradizioan neskentzako diren jarduerak anima ditzakete, eta emakumeek aldiz, tradizioan mutilentzat direnak.*
2. *Konpromiso hori hartu ahal izateko, beharrezkoa da hezitzaileek genero ikuspegiari buruzko gaitasunak eta prestaketa bereganatzea. ➤ Berdintasuna lortzeko konpromisoa eta borondateaz gain, neska eta mutilen arteko ezaugarri bereizgarriak ulertzeko, beharrezkoa da aldez aurretik ezagutzak eta tresna teoriko-praktikoak edukitzea. Horretarako, langileei prestaketa bat proposatzen ahal zaie; beste aukera bat izan daiteke kontratazioak egiterakoan ezagutza horiek baloratzea.*
3. *Beharrezkoa da azterketa bereizgarri kuantitatiboak eta kualitatiboak egitea ➤ Kuantitatiboari dagokionez, datuak beti sexuaren arabera banatuta bildu behar dira, azterketa bereizgarri eta konparatzaileak egin ahal izateko. Kualitatiboari dagokionez, neska eta mutilen behar, egoera eta testuinguruak era berean kontuan hartuko direla bermatu behar da.*

4. Ekipamenduan parte hartzen duten emakumeak –hezitzaileak eta erabiltzaileak- erabaki eta erantzukizun arloetan sartzeko ahaleginak egitea:
- Ekipamenduen helburuei eta kudeaketari dagozkien erabakietan hezitzaile emakumeek parte hartzeko baldintzak sortzea, eta beren parte hartzeak baloratzea.
 - Nesken parte hartzea eta ikuspuntuak sustatu behar dira, aurrez ikusitako etapa guztietan (beharrak antzematea, parte hartzea eta ebaluaketa) ➤ *Beren behar espezifikoak kontuan hartzea, jardueretan eta espazioaren edo zerbitzuen erabilpenean beren parte hartzea ahalbidetzea, eta ebaluaketarako beren ekarpenak biltzea. Aldatu beharreko egoera izan daiteke, adibidez, jarduera jakin batean neskak ikusle soilak izatea, eta mutilak protagonista aktiboak, aktibo-pasibo harremanaren eskemari jarraiki. Horri aurre egiteko, neskak bultzatzea eta mutilak lasaitzea mekanismo egokia izan daiteke, neskak dinamikan sartzen uzteko. Beste adibide bat izan daiteke lider posizioak daudenean (talde jolasak) sexuaren arabera txandakatzea.*
5. Aukera berdintasunari buruzko sostenguak eta aholkuak kontuan izatea ➤ *Aukera berdintasuna lortzeko eta genero ikuspegia eta prestaketa barneratzeko, aholkuak kontuan hartu behar dira. Izan ere, lan horrek ezagutzak, sostengua eta tresnak behar ditu. Aholkularitza aterabide bat izan daiteke hasierako taldeentzat, langileak bakarrik moldatu ahal izan arte.*
6. Aukera berdintasunaren aldeko lanean gizonak sartzea ➤ *Berdintasuna lortzeko antolatzen diren ekimen guztietan, interesgarriagoa da gizonek ere parte hartzea –bai langileek bai erabiltzaileek-. Horretarako, adibidez, berdintasun baloreen aldeko jarduerak antola daitezke, eta bertan mutilei parte harrarazi, gizonezko hezitzaileekin. Noski, hezitzaileek, langileak diren heinean, prestaketetan eta langileentzako beste ekintzetan parte hartu behar dute. Baina, horrez gain, interesgarria izan daiteke horietako baten buru beraiek izatea, bi helbururekin:*
- *Berdintasun mezua zabaltzea ez da emakumeen kontua bakarrik.*
 - *Erreferentzia positiboak izatea erabiltzaileentzat, maskulinitatearen beste eredu batzuk erakutsiz.*

⇒ **Laburbilduz:**



3.2. Beharren diagnostikoa

Diagnostiko hau ekintza oro planteatzerakoan erabil daitekeen proposamena da. Gazteleku baten proiektua hasi baino lehen, bertako Udalerria eza-gutzea beharrezkoa da. Garrantzi berezia eman behar zaio ekipamenduaren publiko objektuak, nerabeek alegia, parte hartzeari. Beharren diagnostikoa, ekipamendua martxan jarri ondoren, aldizka erabili behar den tresna da, une oro nerabeen beharrei ahal bezain modu egokienean erantzuteko.

Aurreko kapituluan azaldu dugunez, beharren antzemate horrek, ekipamendua martxan jarri ondoren, hezitzaileen hautemateak eta esperientzia ditu oinarri, batik bat. Uste dugu lan hori sistematizatzeak eta formalizatzeak asko erraztuko lukeela genero ikuspegia barneratzea.

⇒ **Irizpideak:**

1. Sexuaren arabera berezitateko datuak erabili behar dira. Izan ere, beharrezko baldintza da genero ikuspegia barneratzeko, errealitate bereizgarriak islatzen baititu ➤ *Datu bateratuak bilduz gero, beharren diagnostikorako interesgarriak liratekeen mutil eta nesken arteko egoera bereizgarriak alboan utz ditzakegu. Gainera, sexuaren arabera banatutako datuak biltzeaz gain, ikerketa bereizgarria eta konparatiboa ere egin behar da.*
2. Informazio kualitatiboa biltzeko orduan, neska eta mutilen parte hartzea baliokideak direla segurtatu behar da, behar guztiak kontuan hartu ahal izateko ➤ *Ez da aski nesken presentzia segurtatzea. Beren parte hartzea bermatu behar da, nesken eta mutilen ekarpenak berdin hartu behar dira kontuan, baita bien interesak, beharrak, motibazioak eta astialdiaren erabilera ere.*
3. Informazio bilketa hori, beraz, kualitatiboa eta kuantitatiboa izan behar da. Horrez gain, batez ere neska eta mutilen parte hartzeari dagokionez, programatutako jarduera bakoitzarekin egin behar da bilketa, hori baita bidea balizko informazioa lortzeko, emaitzen eta esperientzien araberako programazioak erabakitzerakoan ➤ *Puntu hori oraindik garrantzitsuagoa da aurreko urteetako esperientzia eta arrakasta nahikoa direlarik jarduera bat errepikatuz. Kontuan hartu behar da zer jarduera mota den, nork parte hartzen duen bertan (neskak, mutilak), eta nola hartzen duten parte. Gerta daiteke jarduera batean parte hartze maila orokorra altua izatea, baina sexu aldagaia kontuan hartuta aztertuz gero, ohartzea parte hartzaileen gehiengoa neskek ala mutilak direla.*
4. Nerabe batzuek beharrak, eskaerak, gustuak eta nahiak adierazteko zailtasunak dituztela ikusiz gero, beren adierazpena errazten saiatzea ➤ *Kanal berriak bilatuz, testuinguru lagungarriak sortuz, konfiantza indartuz, batez ere pertsona lotsatieta, modu aktiboan entzunez, iritzi guztiak berdin baloratuz, beren burua protagonista sentiaraziz. Ez da nahikoa pertsona aktiboenen edo bistakoenen (askotan mutilak) eskakizunak bakarrik entzutea.*

⇒ Laburbilduz :

- 1**
 - Sexuaren arabera bereizitako datuak erabiltzea, ezkutuan gera daitezkeen mutil eta nesken arteko egoera bereizgarriak agerian uzteko.
 - Azterketa bereizgarri eta konparatzailea ere egin behar da.
- 2**
 - Informazio kualitatiboa biltzea, neska eta mutilen parte hartze baliokidea bermatzeko.
 - Nesken presentziaz gain, beren parte hartzea sustatzea.
 - Neska eta mutilen informazioa berdin biltzea, eta berdin kontuan hartzea bien interesak, beharrak, motibazioak eta astialdiaren erabilera.
- 3**
 - Programaturiko hainbat jardueratan neska eta mutilen parte hartzeari buruzko informazio kualitatibo eta kuantitatiboa eskuratzea:
 - Ezinbestekoa da, aurreko urteetako esperientzia kontuan hartzen baita jarduerak programatzeko.
- 4**
 - Nerabe batzuek beharrak, eskaerak, gustuak eta nahiak adierazteko zailtasunak dituztela ikusiz gero, beren adierazpena errazten saiatzea:
 - Kanal berriak sortuz
 - Konfiantza indartuz
 - Modu aktiboan entzunez
 - Iritzi guztiak berdin baloratuz (ez bakarrik bistakoenenak)

3.3. Jarduerak programatzen

Programazioa tresna bat da, eta helburuak lortzeko eta antzemandako eskakizunei erantzuteko antolatu nahi diren ekintzei aurrea hartzeko balio du. Hori dela-eta, ekintzaren muina programazioa da, helburuak, metodologia, denbora eta baliabideak zehazten baititu.

Genero ikuspegitik, garrantzitsua da kontuan hartzea historian emakumeak beranduago sartu direla astialdiko programetan; hasiera batean, mutil eta neskak bereiz egoten ziren, eta ondoren, elkarrekin. Baina beren perspektiba soziokulturala ez da erritmo berdinean sartu, eta femeninotzat jotzen diren balore asko bigarren mailan ezarri dira. Horrek eragina eduki du programazio soziokulturean, balore maskulinoetan oinarritu baita.

⇒ Irizpideak:

1. Taldearen ezaugarriak eta osatzen duten kideen berezitasunak kontuan hartu behar dira ➤ *kontuan izan behar diren aldagai nagusiak adina eta sexua dira*
2. Aisiarako alternatiba moduan, neskak eta mutilak interesatzen dituzten, eta berdintasun baloreei erantzuten dieten jarduerak antolatuta behar dira ➤ *Beharren diagnostikoan antzemandako interesen arabera, berdintasun baloreei erantzuten dieten jarduerak planteatzea. Adibidez, kirol jardueren programazioan, balore kooperatiboan eta lan taldearen ikuspegitik lan egitea, lehiakortasun egoerak ekiditeko, horietan, gainera, neskek berezko desabantaila eduki baitezakete.*
3. Estereotipoak gainditzeko, bi alderditatik lan egin daiteke:
 - Beste balore mota bat sustatzea, genero estereotipoen arabera jarduerak programatuz, beren helburua estereotipoak gainditzeko izanda. Hau da, behar praktikotik abiatuz (nesken eta mutilen gustuen arabera jarduerak, askotan estereotipatuak), genero eginkizunetatik haratago doazen interes estrategikoak lantzea ➤ *Neskentzat, adibidez, modaren inguruko jarduerak antolatzea, baina genero faktorearen arabera edertasun ereduetatik at joanez (mehetasuna, erotismoa, sexu objektuak...), eta beste alderdi batzuk landuz; adibidez, sormena, irudimena edota ekimena. Mutilentzat, adibidez, jolas lehiakorretatik abiatuz, kooperatibismoa eta lan taldeari dagozkien baloreak lantzea.*
 - Estereotipatuak ez diren jarduerak diseinatu eta programatzea, eta bertan nesken eta mutilen parte hartzea sustatzea (jardueren marketina lantzea, erakargarriagoak izan daitezkeen). ➤ *Ikuspuntu bikoiztetik planteatu behar da: mutilak beste jarduera batzuetan parte hartzea bultzatzea, hau da, tradizioan balore femeninoak dituzten jardueretan, eta beraz gizartean ezagupen gutxiago dutenetan (jolas kooperatiboak, eskulanak...). Jarduerak birbaloratzeko eta motibazioa pizteko balio duen lana da, batez ere. Neskei dagokienez, tradizioan maskulinitzat jotzen diren jardueretan parte hartzea bultzatzea. Segurtasun gutxi edukiko dute, baina ez dute motibaziorik faltako, jarduera horiek duten ezagupen ona dela-eta. Autoestimua eta motibazioaren inguruko lana da (autonomiara, abilezia fisikora bultzatzen duten jarduerak...).*

⇒ Laburbilduz:

1

- Taldearen ezaugarriak eta osatzen duten kideen berezitasunak kontuan hartzea (sexua, adina).

2

- Aisiarako alternatiba lirakeen jarduerak programatzea, neska eta mutilak interesatzen dituztenak, eta berdintasun baloreei erantzuten dietenak.

3

- Estereotipoak gainditzearen alde lan egitea

- Beste balore mota bat indartzea, jarduera estereotipatuen bitartez, genero eginkizunak gainditzeko: behar praktikoetatik abiatuz, (interes estereotipatuak) behar estrategikoak lantzen dira (balore ez estereotipatuak).
- Jarduera ez estereotipatuak diseinatzea, eta mutil eta neskek bertan parte har dezaten ahalbidetzea (marketin soziokulturala).

3.4. Jarrera, eginkizun eta baloreetan


Ekipamenduetan hezitzaileek erakusten dituzten jarrera, eginkizun eta baloreei buruz hausnartzea ezinbestekoa da. Beraz, eskema mental propioak sakon aztertu behar dira, eta eguneroko lanean bidaltzen ditugun mezuekin arretaz ibili behar da.

⇒ Irizpideak:

1. Genero estereotipo tradizionalak ekiditea, zein diren gogoan argi edukiz ⇒ *Bai neskak bai mutilak mota ezberdineko jardueretan parte hartzera motibatuz, (ekintza, abentura eta ezagupenetik hasita, etxeko betebeharrak, elkarrerantzukizun eta zainketa arte). Honela, beren kabuz ikus dezakete ez dagoela jarduera femenino edo maskulino hutsik.*
2. Hainbat jolas eta teknikaren bidez, sentimendu eta emozioak adierazten laguntzea ⇒ *Ekipamenduen testuinguruan, jolasek garrantzi berezia hartzen dute, nerabeek horien bitartez jartzen baitira harremanetan helduen eginkizunekin. Beharrezkoa da neskak eta mutilak animatzea, jolas mota ezberdinetan parte har dezaten, eta jarduera eta ikaskuntza ezberdinetako dinamiketan sar daitezen.*

3. Genero eginkizunen aldaketa sustatzea ➤ *Nerabeentzako ekipamenduetako betebeharrak sozioedukatiiboaren bitartez batetik, eta, bestetik, aisia eta astialdiko gizarteratze prozesuaren bidez.*
4. Hezkuntza helburua daukan harreman orotan, hezitzailea identifikazio eredu nagusia bihurtzen da, eta are gehiago astialdian; izan ere, bertan, hezitzaileen eta pertsona edota taldearen arteko harremana oinarritzeko pedagogia tresna da ➤ *Garrantzitsua da hezitzaileen jarraera eta baloreek (mugimenduak, ahots tonuak, adierazpena, itxaropenak, aurreiritziak...) bat egin dezaten egiten eta esaten dutenarekin.*
5. Aukera berdintasunaren aldeko lanaren abiapuntu moduan, aurretiaz jakin behar da zein diren genero estereotipoak eta zein faktorek indartu ala gainditu ditzaketen ➤ *Desorekak sortzen dituzten genero ezberdintasunei buruzko aurretiazko ezagutza beharrezkoa da.*

⇒ **Laburbilduz:**



3.5. Hezitzaile taldean. Eginkizun

Gida honetan jadanik esan dugu zein garrantzitsuak diren hezitzaileak, ekipamenduetara joaten diren nerabeentzako erreferentzia eredu moduan. Ondorioz, oso garrantzitsua da eredu horiek berdintasunezko eredu moduan islatzea, baloreak transmititzeko oinarritzko mekanismoak diren heinean.

⇒ Irizpideak:

1. Jarduerak erabakitzerakoan, erantzukizunak eta ekimenak gizonezko eta emakumezko hezitzaileen artean berdintasunez banatzea ➤ *kirol jarduera, tailer, eskulan eta gorputz-adierazpeneko jardueretan erantzukizun berdinak edukitzea, ala txandaketaren bidez eginkizun malgu eta trukagarriak edukitzea hainbat jarduera motatan.*
2. Esku hartze eta protagonismo denborak berdintasunez banatzea gizonezko eta emakumezko hezitzaileen artean ➤ *era berean, jardueren bitartean, bai gizonezko bai emakumezko hezitzaileek protagonista dituzten esku hartze orekatuak bermatu behar dira.*
3. Autoritatea berez ematen duten esku hartzeak gizonezko eta emakumezko hezitzaileen artean banatzea ➤ *hezitzaileen behar berezia duten jardueretan batez ere.*
4. Elkarren errespetuan eta besteen ezagutza eta gaitasunen onarpenean oinarritutako harremana eraikitzea ➤ *honela, gizon eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta profesionaletan ohikoak diren aurreiritzi sexistak errepikatzea ekiditen da.*
5. Baterako hezkuntza lantzeko espazioak sortzea ➤ *gaiari buruzko informazioa zabaltzea, horren inguruko klase, tailer eta seminarioetara joatea, lana programatu, antolatu eta baloratzeko orduan.*
6. Lan talde bakoitzean Aukera berdintasunean aditua den pertsona bat bederen sartzen saiatzea.

⇒ Laburbilduz

1.
 - Jarduerak erabakitzerakoan, erantzukizunak eta ekimenak gizonetako eta emakumezko hezitzaileen
2.
 - Jarduera ezberdinetan erantzukizuna hartzea.
 - Txandaketak egotea, eginkizunak malguak eta trukagarriak izan daitezzen.
3.
 - Esku hartze eta protagonismo denborak berdintasunez banatzea gizonetako eta emakumezko hezitzaileen artean
4.
 - Autoritatea berez ematen duten esku hartzeak gizonetako eta emakumezko hezitzaileen artean banatzea
5.
 - Elkarren errespetuan eta besteen ezagutza eta gaitasunen onarpenean oinarritutako harremana eraikitzea.
6.
 - Lan harremanetan aurreiritzi sexistak ez errepikatzea.
7.
 - Lan harremanetan aurreiritzi sexistak ez errepikatzea.
8.
 - Baterako hezkuntza lantzeko espazioak
9.
 - Lan talde bakoitzean aukera berdintasunean aditua den pertsona bat bederen sartzen saiatzea.

3.6. Hezitzaile eta neska mutilen arteko elkarrekintzan

Nerabeekin sortzen diren harremanak ere oso garrantzitsuak dira baloreak transmititzeko. Pedagogiarako eta ekintzarako osagaiak ere bihur daitezke, eta, bertan ere, ezinbestean barneratu behar da genero ikuspegia:

⇒ Irizpideak:

1. Mutilek eta neskek, berez, portaera jakin bat segitu behar duten irizpideak baztertzeko ⇒ *ez da pentsatu behar neskek, neskek direlako, izaera jakin bat eduki behar dutela (kirol jarduerak ez diete interesik pizten, eserita hitz egitea nahiago dute, jarduteko ez dute espazio ireki eta handirik behar...), eta mutilek, mutilak izateagatik, beste izaera batekoak izan behar dutela (jolas eta jarduerentzat mugitu beharra dute, espazio zabalak behar dituzte, zarata gehiago egiten dute...)*

2. Neskak gehiago entzutea, eta beren iritziak mutilenak bezain bat baloratzea, baita indartzea ere, behar izanez gero (mutilak baino gutxiago diren momentu, jarduera eta abarretan), irizteko espazio gehiago eta garrantzi gehiago emanez.
3. Mutilak eta neskak sexu jakin bati esleitzen zaion jardueretan parte hartzera bultzatzea, bai batak bai besteak animatuz ➤ *Neskei dagokienez, autoestimua pizgarri eta esfortzu gehiago behar da, tradizioan mutilentzako diren jardueretan parte har dezaten. Izan ere, gizartean prestigioa eduki arren, segurtasun eza sentiarazten diete. Mutilen dagokienez, tradizioan neskentzako diren jardueretan parte har dezaten, prestigio gehiago eman behar zaie, eta burla egoerak ekiditen ahalegindu behar da.*
4. Parte hartze mistoak eta nagusitasun mistoak txandaka sustatzen saiatzea, nesken parte hartzeak nabarmenduz, urriagoak baitira ➤ *helburua da ekiditea jarduera edo egoeretan neskak ikusle soilak izatea, eta mutilak protagonista aktiboak. Nesken nagusitasuna berez gertatuz gero, indartu egin behar da.*
5. Adibide estereotipaturik ez erabiltzea, eta neskak lehentasunez hartzea adibide gisan ➤ *neskak bistaratzeko modua izan daiteke, arlo publikoko aisia eta astialdi espazioetan. Gainera, sexu bati ala besteari lotzen zaizkion jardueretan, ongi litzateke estereotipo horiek gainditzeko dituzten adibideak erabiltzea (kirol jarduerak azaltzeko neska bat adibidetzat hartzea, eta eskulanentzat mutil bat)*
6. Dinamizazioari dagokionez, taldeko nagusitasuna eta protagonismoa ez duten pertsonak ere kontuan hartzea ➤ *ez ozenago, bortitzago, harrokeria gehiagorekin hitz egiten dutenak bakarrik.*

⇒ Laburbilduz:

- 1** ■ **Mutilek eta neskek, berez, portaera jakin bat segitu behar dutela ez pentsatzea.**
 - Gizarte aukerak sexuaren arabera.
- 2** ■ **Neskek gehiago entzutea, eta beren iritzia mutilenak bezala baloratzea.**
 - Neska gutxiago izanez gero, nesken iritziei garrantzi gehiago ematea.
- 3** ■ **Mutilak eta neskek sexu jakin bati esleitzen zaizkion jardueretan parte hartzea bultzatzea.**
 - Tradizioan mutilei esleitutako jarduerak: Nesken segurtasuna eta autoestimia indartzea, eta lotsa sentimendua gainditzea
 - Tradizioan neskei esleitutako jardueak: prestigioa ematea, mutilek parte har dezaten, eta barregarri geratzea eta lotsa gainditzea.
- 4** ■ **Parte hartze mistoak eta nagusitasun mistoak txandaka sustatzea**
 - Neskek ikusle soilak bilakatzea ekiditea.
 - Nesken nagusitasuna bultzatzea, eta, berez sortzen delarik, sustatzea.
- 5** ■ **Adibide estereotipurik ez erabiltzea, eta neskek batez ere hartzea adibide gisan.**
 - Neskek agerian jartzeko mekanismoak.
 - Estereotipoak gainditzea.
- 6** ■ **Taldeko nagusitasuna eta protagonismoa ez duten pertsonak ere kontuan hartzea.**


3.7. Neska eta mutilen arteko harremanetan

⇒ Irizpideak:

1. Neska eta mutilen arteko jarrera sexistak (irainak, burlak, txisteak...) antzematea ⇒ *antzemateaz gain, lehenik eta behin, hezitzaileek argi eduki behar dute ezin direla normaltzat jo, ez eta mutil eta neskek beren artean konpondu beharreko kontutzat hartu. Hori argi edukiz gero, ildo horretan lan egiten hasten ahalko dira: jarduera espezifikoak antolatuz, edo jarrera sexistei buruzko informazioa emanez (ikus 4. kapitulua: genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarriak).*
2. Taldeko arazoak eta istiluak konpontzeko bideak aurkitzea ⇒ *normak ados daitezke, edota istiluak konpontzeko teknikak praktikan jartzeko dinamikak sortu (ikus 4. kapitulua: genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarriak)*

3. Sexuaren araberako ezberdintasun egoerei buruzko jarrera kritikoak sustatzea ➤ *informazioa emanez, edo dinamika, jarduera eta jolas espezifikoaren bitartez lan eginez (ikus 4. kapitulua: genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarriak)*
4. Erabiltzaileen artean talde lanak eta lankidetzak bultzatzea ➤ *dinamika hori hainbat momentutan erabili behar da, besteren artean, jardueren antolaketa eta parte hartzean, espazioen banaketan, edota baliabide komunen erabileran.*
5. Autonomia pertsonala sustatzea, eta bereziki, neska eta mutilen artean sortzen diren ezberdintasun eta botere harremanak gainditzeko lan egitea ➤ *helburu hori duten jarduerak antola daitezke. Autoestimua indartu behar da, neskena batik bat, eta mutilen jarrerak, ez direnean ez autoritarioak ez bortitzak, sustatu egin behar dira.*

⇒ **Laburbilduz:**



3.8. Materialak lantzerakoan

Ekipamenduko materialak berrikustea beharrezkoa da, segurtatzeko edukiek aukera berdintasunaren arabera hezkuntzarekin bat egiten dutela. Baloreak, jarrerak eta harremanak genero ikuspegitik eraikitzen badira ere, materialek osagai sexistak baldin badituzte, eredu estereotipatuak transmititzeko arriskua badago.

Komunikazio bideak modu ez sexistan erabiliz, errealitatea aldatzea lortzen ahalko da, mundua eta gizon eta emakumeen arteko harremana ikusteko modua aldatu egiten baita. Komunikazioak pentsamenduarekiko harreman estua duenez gero, aldaketa alderdi sozioedukatibo eta kulturaletik egin daiteke, nerabeen jarreretan eta errealitateaz duten ikusmoldean eragina edukitzeko.

⇒ Irizpideak:

Irudiak, hizkuntzarekin batera, estereotipo sexistak bideratu ditzaketen komunikazio mekanismoak dira, ez badira berdintasunezko irizpidearen araberaren erabiltzen:

1

IRUDIETAN

- Agertzen diren emakumezko eta gizonezko pertsonaien proportzioa orekatzea.
- Pertsonaia horiek leku ezberdinetan erakustea, kokapen estereotipatuak ekidinez, generoaren arabera; hau da, emakumezko pertsonaiak ez espazio itxi, txiki, etxekoetan erakustea, eta gizonak leku ireki, zabal, publikoetan. Alderantziz, biak bi espazio motetan agertu behar dira.
- Pertsonaia horiei esleitzen zaizkien kalitateak ez estereotipatuak izatea : neska arduratsua, mutil barregarria, dinamikoa...Kalitate guztiak biekin lotu behar dira.
- Emakume eta gizonen lanbideak ez estereotipo sexisten arabera izatea: **andereño, idazkari, erizain, buruzagi, mediku**... Gizonak eta emakumeak lanbide berdinetan erakutsi behar dira
- Mutil eta nesken zako interesa duten jarduerak, aisialdi eta dibertsio moduak eratztea.
- Erakustea helburua dena banatzea dela, pribatua eta publikoa, lana eta dibertsioa. Kontua ez da neska enpresaburu jartzea eta mutila soka jolasetan, baizik eta testuinguru guztietan biak agertzea

Testuetan, hizkuntzaren erabilera erabakigarria da, gizartean eraikitako komunikazio mekanismoa baita, eta, hortaz, eragin handia du errealitatea hautemateko eran; gainera, pentsamendua eta munduaren ikuspegia ere baldintzatzen ditu. Testuen bitartez, errealitatea izendatzen dugu, etiketak jartzen dizkiogu, eta, aldi berean, errealitate hori interpretatzen eta sinbolikoki sortzen dugu. Idatzizko Hizkuntzaren bitartez errealitatea sinbolizatzeko prozesu horrek garrantzi handia du nortasun sozial eta pertsonala eraikitzerakoan.

Hori dela-eta, genero ikuspegia ekipamenduan barneratzeke lana egiteko, zerbitzuetan ekoiztutako idatzizko materialak berrikusi behar dira, erabilera sexista posibleak zuzendu ahal izateko.

Hona hemen hizkuntza sexismoa eta androzentrismoa ekiditeko ildo nagusiak. 4. kapituluan (genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarririk), jarraibide horiek sakonago aztertuak dira.

2

TEXTUETAN

- Genero ikuspegia barnatzen duen hizkuntza erabiltzea
- Adjektiboekin kontuz ibiltzea, estereotipoak gainditzeko: gizon altu, dinamikoa eta gogorra, emakume eder, gozo, beldurtia
- Estereotipoak haustea (Ez esan: "aitaren autoa", "amaren aspiragailua")
- **Genero femeninoa ez erabiltzea izen ona galarazteko**
- **Termino generiko edo kolektiboak erabiltzea, sexuaren arabera markatutako ordez**
- Emakumeak mendeko edo bereizitako kategoria moduan ez aipatzea
- Testuen azalpenetan jarritako adibideak erakargarriak izatea, bai mutilentzat bai neskentzat
- Emakumezko erreferentziak sortzea. Arlo jakin batean gailendu diren emakumeak izendatzea.

3.9. Espazioaren definizioan eta banaketan

Espazioa ez da neutroa. Neska eta mutilen arteko ezberdintasuneko harremanak eta eginkizun bereizgarriak islatu egiten ditu. Espazioa berdintasun parametroen arabera erabiltzea bertan proiektatzen diren genero ezberdintasunetan eragina edukitzeko modu bat gehiago izan daiteke.


⇒ Irizpideak:

1. Espazioaren erabilera eta banaketa kontuan hartzea ➤ *Ekipamendua den moduko espazioetan ere, askotan oharkabean, mutilentzako egokiagoak ala neskentzako egokiagoak diren arloak banatzen dira. Hala eta guztiz ere, ohikoagoa da mutilek nesken espazioa hartzea, alde-rantzizkoa baino. Mutilei dagokienez, gainera, beste faktore bat gehitzen da. Izan ere, beren ekipamenduak neskenak baino mugikorrak dira. Ondorioz, mutilen presentzia nabarmenagoa da, hainbat espaziotan sartzeko mugimendu askatasuna duten heinean. Ondorioz, espazioaren erabilera eta banaketa berrikustea beharrezkoa da. Horretarako tresna egokia, eta ebaluaketan sar daitekeen osagaia, espazioaren erabilerari buruzko informazioa biltzeko fitxak sortzea izan daiteke, behaketaren bitartez (sexuaren, adinaren, jarduera motaren, ordutegien edota egunen arabera erabilera).*
2. Espazio bakoitza jarduera bakoitzarentzat gordetzea ➤ *honela, jarduera orok bere espazioa edukiko duela bermatuko da, eta protagonismo gehien duten jardueren inposaketa eta istiluak ekidingo dira.*
3. Espazio kolektiboetako neska eta mutilen ezaugarriak ematea, arreta jarritz, espazio guztiak, direla txarrak direla onak, neskek eta mutilek erabil ditzaten, eta espazio bakoitza bai neskek bai mutilek erabili ahal izan dezaten:
 - a Espazio balioaniztun, malgu eta irekiak eta zubi espazioak sortzea ➤ *horiei esker, jarduera mistoak errazago sortzen dira, eta mutilek nagusiki erabiltzen dituzten espazioen eta neskek bereziki erabiltzen dituzten artean, trantsizio espazioak, topaketa espazioak sortzen dira.*
 - b Jarduerak txandakatzea ➤ *interesgarria izan daiteke parte hartze bereziak dituzten jarduerak (hau da, neskek ala mutilek bereziki*

zuzentzen dituztenak) hainbat espaziotan gertatzea. Honela, espazio jakin batzuetan neskek ala mutilak nagusitzea ekiditen da. Halere, garrantzitsua da bermatzea jarduera bakoitzarentzat espazio bat egotea.

- c Nesken jardueri espazioan garrantzi berezia ematea \Rightarrow dena den, bereziak diren jarduera horietan, ekintza positibo moduan, espazio nagusiak lehentasunez nesken jardueri ematea komeni da, alboratzeko edo inguruko espazioetan egoteko duten joera konpentsatzeko.
- 4. Komunikaziorako eta lasaitasunerako espazioak antolatzea \Rightarrow alde batetik, nesken behar, interes eta ohitura propioak kontuan hartuta, espazio mota hori bermatzea komenigarria da; eta, bestalde, aipatutako topaketa eta zubi espazioak indartzeko modua ere izan daiteke. Gainera, mutilei ere irekitako espazioak diren heinean, hain estereotipatuak ez diren kalitateak garatzeko mekanismoa izan daiteke (harremanak, lasaitasuna, komunikazioa...)

\Rightarrow Laburbilduz:



3.10. Ebaluaketan

Lan guztietan, ebaluaketa oso garrantzitsua da, emaitzen arrakasta ala porrota ezagutzeko tresna baita, eta horrek hobetu baititzake prozesuak eta lan egiteko erak. Ebaluaketan genero ikuspegia barneratzeko, lehenik eta behin, ekipamenduaren helburuetan eta ebaluatu beharreko programetan barneratu behar da, ondoren, helburu horiek modu eraginkorren betearaziko dituzten genero adierazleak sortzeko.

Generoaren arabera ebaluatzeko, programa eta jarduerak mutil eta neskan duten eraginaren balorazioa ebaluaketaren helburuetan barneratu behar da.


⇒ Irizpideak:

1. Ekipamenduan parte hartzen dutenei buruzko datu guztiak sexuaren arabera banatzea ➤ *sexuaren arabera parte hartzeari buruzko datu fitxak egitea, eta datu horiek modu bereizgarrian aztertzea (ez batera)*
2. Programa eta jardueren diseinu, garapen eta kudeaketa prozesuetan mutil eta nesken egoera ezberdinak kontuan hartu diren ala ez aztertzea ➤ *genero ikuspegia barneratzeko irizpideak betetzen diren baieztatzea (kapitulu honetan aipatutako etapa guztietan).*
3. Programa eta jarduerak neska eta mutilengan dituzten emaitza eta eragin bereizgarriak aztertzea ➤ *hori egin ahal izateko, beharrezkoa da jarduera eta aktibitateetako parte hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera banatzea.*
4. Neska eta mutilenganako emaitza eta eragin ezberdinen arrazoiak bilatzea ➤ *Emaitzak sexuen arabera ezberdinak baldin badira, ezberdintasun horien jatorria eta arrazoiak bilatzea beharrezkoa da, jakiteko zerikusia duten desorekarekin, ala beste arrazoi batzuekin.*
5. Berdintasunaren ildoan lortutako balore, eginkizun eta estereotipo aldaketak aztertzea, ekipamenduan parte hartzen duten bi taldeetan: hezitzaileak eta erabiltzaileak ➤ *horretarako, egoera hasieran aztertu behar da, prozesua jarraitu behar da, eta bukaeran ebaluatu behar da, hasierako egoerarekiko konparaketa egin ahal izateko, eta lortutako aldaketen arabera, konklusioak ateratzeko.*

- 6 Aukera berdintasunaren ikuspegitik lortutako jarrera onak eta ikas-kuntzak antzematea eta eredutzat jotzea ?? *genero ikuspegia barneratzearen alde burututako jarrera onak biltzeko materialak sor daitezke, ekipamenduaren funtzionamenduko etapa guztietan. Eredu horiekin langileentzako eskuliburuak egin daitezke; leku batzuetan, lan taldeak asko txandakatzen direnez, oso tresna baliagarria izan daiteke.*

⇒ **Laburbilduz:**

Ebaluaketaren helburuetan programa eta jarduerak neska mutilengan duten eraginaren balorazioa gehitzea



1. Parte hartzeari dagozkion datuak sexuaren arabera bereiztea
2. Programa eta jardueren diseinu, garapen eta kudeaketa prozesuetan egoera bereizgarriak kontuan hartu diren ala ez aztertzea
3. Programa eta jarduerak neska eta mutilengan dituzten emaitza eta eragin bereizgarriak aztertzea
4. Neska eta mutilenganako emaitza eta eragin ezberdinen arrazoiak bilatzea
5. Berdintasunaren ildoan lortutako balore, eginkizun eta estereotipo aldaketak aztertzea, ekipamenduan parte hartzen duten bi taldeetan: hezitzaileak eta erabiltzaileak
6. Aukera berdintasunaren ikuspegitik lortutako jarrera onak eta ikaskuntzak antzematea eta eredutzat jotzea

4 Genero ikuspegiarekin lan egiteko tresna baliagarriak

4.1 Hizkuntz sexismoa eta androzentrismoa ekiditeko ildo nagusiak*

Hizkuntzak berebiziko indarra du giza irudia gauzatzekoan, baita gizabakoaren nortasuna eta subjektibitatea eratzekoan ere. Labur esanda, hizkuntzak zertu ohi ditu indarrean den gizarte sistemaren kulturaren balioak eta kategoriak. Emakumea gizartearen esparru askotan bazterturik bizi baldin bada, erraza izango da bazterte hori hizkuntzaren adierazpideetan ere agertzea.

Aitortu beharra dago, dena den, beste auzo hizkuntza gehienek ez bezala, euskarak ez duela, gramatikaren kategoria nominaletan, sexuen arabera berezitako genero gramatikalaren markarik. Beraz, «hizkuntz androzentrismoa» deitu izan dena (gizonezkoari soilik dagokion genero gramatikala erabiltzea pertsona guztiak adierazteko) ez da hain era nabarmenean gertatzen euskaraz.

Nolanahi den ere, euskaraz ere gogoan izan behar dira irizpide eta jarraibide orokor batzuk. Jarraian datozenak, funtsean, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak 1988an argitaratutako «Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak» (http://www.emakunde.es/images/upload/lenguaje_e.pdf) izeneko liburuan agertutakoen egokitzapenak dira.

* 4.1. Puntua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak egina.

Emakumeak, emakume

- *Gizon, gizaseme eta gizona* forma maskulinoak dira. Forma orokorrerako gizaki eta giza- erabiliko ditugu.
- *Zuzendari jauna* formula saihestuko dugu eta hurrengo hiru aukeren artean aukeratu: zuzendaria (pertsona nor den ez dakigunean), *zuzendari jauna* edo *zuzendari andrea* (pertsona nor den dakigunean).
- Pertsonak izen, abizen, kargu, lanbidez identifikatu behar dira, *ez andre* edo *jaunaz*. Erabili: (*Miren*) *Azkarate* Kultura sailburua, *ez (Miren) Azkarate andrea*.
- Gizonekin abizena soilik aipatzen bada (*Ibarretzek esan du...*), andreekin ber gauza egin (*Zenarrutzabeitiak adierazi du...*).

Nahasian ala bereiz?

- Hitanoa (aditzak hika *etorri duk* edo noka *etorri dun* jokatzea) ez dugu talde misto bati zuzendutako mezuan inoiz erabiliko. Halakoetan, erabili beti hizkera neutroa (*etorri da*).
- Egoera zehatz batzuk nahasgarri izan daitezke: esate baterako irratian edo jende aurrean (entzuleen artean gizon-emakumeak direla) gizona batek gizona bati egindako elkarrizketan ez dugu hitanoa erabiliko, adizkera neutroak baizik.

Euskaraz ari gara

- Euskaraz ditugun hitz elkarketak erabiliko ditugu (*seme-alabak, neska-mutilak*), eta ez gazteleratik etorri zaizkigun kalko guztiz okerrak: *aitak, semeak, errege katolikoak...* (maskulino orokortzaile direnak).
- Ez dugu "-sa" atzizkia erabiliko. Zubereraz bizirik dagoen arren (*laborarisa, jainkosa, alargunsa, abadesa, alkatesa*). Izenaren atzean dagoen pertsonaren sexua zehaztu nahi badugu, *neska dantzaria* edo *mutil dantzaria* esango dugu, adibidez.
- Erne erdararen erduei: gazteleraz *los alumnos* ez esateagatik *el alumnado* esaten delako, euskaraz ez dugu zertan *ikasleria* esaten hasi; *ikasleak* aski da eta ez du inolako genero markarik, noski.

4.2. Hezkidetzaren lan tresna moduan


Hezkidetzaren pertsonak hezteko moduetako bat da. Oinarrian, bakoitzaren banakotasuna dago, generotik haratago, eta hezkuntza mota horren helburua beharrezko gaitasunak indartzea da, gazteak pertsona autonomoak bihurtzeko. Pertsona bakoitzaren gaitasun eta jarrera positiboak garatzeko hezkuntza osagaiak bideratzen datza.

Sexuaren arabera ezberdintasunik gabeko hezkuntza hainbat eragile-erren esku izan behar da (hezkuntzakoak, familiakoak, komunikabideetakoak...), emakumeen eta gizonen balore, jarrera eta gaitasunak berdintzeko xedearekin.

Neskei eta mutilei aukera jakin batzuk ematen zaizkie, eta beren jarrerak ez badatoz bat programatutakoarekin, hainbat alderditatik zigortu egiten dira. Neskei jarrera maskulinoak hartzea errazago onartzen zaie, jarrera horiek prestigio hobea dutelako, baina alderantzizkoa oso gutxitan gertatzen da.

Praktikan, hainbat arlotan, sexuaren arabera gizarteratze prozesu ezberdinak transmititzea oraindik ere ohikoa da. Ondorioz, neskek eta mutilek gaitasun, balore, betebeharrak, izaera eta ikuspuntu ezberdinak dituzte, eta sexu bakoitzaren garapena murriztagoa suertatzen da.

Hezkidetzaren helburua, ordea, bai neskeentzat bai mutileentzat balioko lukeen pertsona eredu bultzatzea da, genero estereotipoen arabera eredu partzialak gainditzeko.



Hori dela-eta, ekipamenduak barne hartzen dituen hezkuntza ez formalean garrantzi handia du hezkidetzaren helburua, arlo ez formalean, ikaskuntza kooperatiboa ematea da, eta bertan parte hartzen duen pertsona guztiek zehazten dute prozesua. Bizitzaren hainbat alderdi (gizartea, kultura, banakotasuna, ezagutza...) kontuan hartzen dituen prestaketa integrala da.

Aisian eta astialdian parte hartzeak bereiziak izatetik misto izatera pasatu dira. Hala eta guztiz ere, gizonezkoen kulturako eginkizunak hedatu direnez, luzaz, emakumeen kultura propioa ezkutuan gelditu da. Eskaintza soziokulturala mutilei eta neskei zuzentzen zaie, baina, askotan ia oharkabean, eskaintza horrek mutilen beharrei erantzuten die; izan ere, tradizioan gizonezkoen lotutako kultura nagusitu eta inposatu da. Praktikan, horren ondorioz, feminitateari loturiko balore anitz tabu izan dira mutilentzat, eta neskek balore gutxi edukiko balute bezala bizi izan dituzte.

Hain zuzen, hezkidetzaren xedea, historian alboratutako eta tradizioan emakumei esleitutako balore, ezagutza, trebetasun eta betebeharrak barnaraztea da.

Eredu horren abiapuntua emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna da, baina hori desoreka bihurtu ordez, aniztasun eta aberastasun bihurtuz, eta berdintasunaren ikuspegitik jardunez, bi ereduak barnerratzeko, femeninoa eta maskulinoa, alegia. Horren helburua, sexu-genero sistema gainditzea da, nortasun integralak eta propioak eraikitzearen alde egiten duten prozesuen bitartez.

HEZKIDETZA

Hezkidetzaren pertsona oro, gizarte generoaren hierarkiatik kanpoko balore, jarrera, norma eta aukera sistema batean prestatzea.



Eredu femeninoa eta maskulinoa barnerratztea

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ETA EZBERDINTASUNA HARTU BEHAR DIRA PROZESUAREN ABIAPUNTU, ETA BI EREDUAK BARNERRATU BEHAR DIRA: MASKULINOA ETA FEMENINOA

Sexu-Genero sistema gainditzea

SEXU-GENERO SISTEMAN OINARRITURIKO GIZARTE ERAIKUNTZA GAINDITU BEHAR DA, ILDO MODUAN PERTSONA HARTUTA, GAITASUN GUZTIAK GARATUZ ETA NORTASUN PROPIOAK SORTUZ, BERE HEZKUNTZA INTEGRALA LORTZEKO.

4.3. Nerabeekin generoa lantzeko jarduerak

Hainbat neurri eta ariketa gara daiteke genero ikuspegia ekipamenduen funtzionamenduan zeharka barneratzeko, gida honetan azaldu dugun moduan. Hala ere, interesgarria izan daiteke lan espezifikoa eta agerikoa ere egitea, genero ikuspegia barneratzearen osagarri gisa. Horren helburua nerabeak berak sentsibilizatzea da, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna lortzea beharrezkoa dela uler dezaten.

Hori dela-eta, pasarte honetan, praktika onen adibide gisa, proposamen bat egiten dugu, **“Berdintasunerako Espazioak”** izenarekin. Hemen, genero ezberdintasunak gainditzearekin zerikusia duten hainbat alderdi landuko ditugu. Hezkidetzaren ikuspegitik eta berdintasun baloreak transmititzeko printzipioarekin, nerabezaroko zenbait alderdi garrantzitsu landuko ditugu.

Dena den, proposamen hau erreferentzi eredu malgua da, eta aldatzea edo zabaltzea zilegi da, baita antzeko beste jarduera batzuk praktikan jartzeko abiapuntu moduan hartzea ere.

⇒ **Helburuak:**

Orokorrean:

Neska eta mutilen arteko harremanetan, genero estereotipoak eta ezberdintasunak gainditzea, helburu horrekin programatutako hainbat jardueren bitartez.

Espezifikoak:

- Neska eta mutilen arteko ezberdintasunak bilatzea eta aztertzea.
- Gizartean neskei ala mutilei dagozkien aukerak identifikatzea
- Neskek eta mutilek aisia eta astialdia erabiltzeko era aztertzea eta konparatzea

⇒ **Aldizkakotasuna:**

Gure aholkua tailerrak bi hilabetero antolatzea da, aurretik finkatutako egunetan, ekipamenduko dinamikan sar daitezen, nolabaiteko jarraipenarekin, baina inoiz obligazio bihurtu gabe. Oso hezkuntza helburu zehatza duten heinean, aldizka egitea komeni da.

⇒ **Metodologia:**

Topaketa espazio bat sortu behar da, hainbat tailer egin ahal izateko. Bertan, metodologia aktibo eta parte hartzailea garatu behar da; hortaz, erabil-tzaile nerabeak izan behar dira protagonistak. Jarduera bakoitza hainbat dina-mikaren bitartez gara daiteke.

Jardueren formatuari dagokionez, aldi oro tailer ezberdina izango da.

⇒ **Jarduera proposamenak:**

1. Genero nortasunari buruzko tailerra:

Helburua: Taldeka, neska eta mutilen arteko ezberdintasunak bilatzea, eta biolo-giaren ala kulturaren ondorioak diren eztabaidatzea.

Iraupena: 2 ordu

Metodologia:

1 Dinamika: “Zergatik gara horrelakoak”

Garapena:

1. Hezitzaileek talde handia talde txikitan banatzen dute
2. Talde txikietan, nerabe bakoitzak nesken ala mutilen ezaugarri propiotzat jotzen dituenak adierazten ditu (jarrerak, portaerak, pentsamoldeak...). Ideia guztiak paper batean biltzen dira, informazioa bi zutabetan banatuz (mutilak, neskak).
3. Taldeen emaitzak konparatzen dira, eta ezberdintasunak arbela batean ala paper handi batean biltzen dira, berriz ere bi zutabetan, sexu bakoitzarentzat bat.
4. Bi zutabeen tituluak trukutzen dira, nesken ezaugarriak mutilenak bihurtuz, eta alderantziz. Horri buruzko iritziak eskatzen zaizkie nerabeei. Galdetu behar zaie zein ezaugarri ez den inondik ere gizonezkoena ala emakumezkoena; eta, denak ados jarri ondoren, horiek marratu egiten dira.
5. Dinamika amaitzeko, erakutsi behar zaie marratutako ezaugarriak ez direla alda-korrek, eta biologiarekin dutela zerikusia (sexua), eta marratuak ez direnak, aldiz, ezaugarri kulturalak eta aldakorrek direla (genero).
6. Azkenik, laburki azaldu behar zaie zer den sexua eta zer den generoa, eta zer eragin duten nortasun pertsonalean.

2. Dinamika: “Zergatik egiten dugu egiten duguna?”

Garapena:

1. Nerabe bakoitzari profil bat ematen zaio (izena, sexua, adina, ikasten ari dena...)
2. Gelako edo espazioko lurrean, klerarekin ala zigilua jarrita, 10 lerro paralelo marrazten dira. Lerroek hamar pauso adierazten dituzte.
3. Ondoren, azaldu behar zaie pertsonaia bakoitza 0 abiapuntuan egongo dela, eta hainbat jarduera irakurriko dituztela (10). Bertan, beren pertsonaia baliara bezala jokatu beharko dute. Uste badute jarduera hori egin dezakeela pertsonaiak, urrats bat aurrera egiten dute (lerro bat), eta uste badute ez lukeela egingo, ez dira mugitzen.
4. Egoera guztiak irakurri ondoren, taldeka hausnartzen dute, pertsonaia bakoitzaren egoerari buruz, lerroetan duen kokapenari buruz. Bakarka, pentsatu behar dute zein izan diren eduki dituzten erraztasunak eta oztopoak.
5. Azkenik, lehen dinamikako ondorioekin konparatzen dira (genero gizarteratzea, denboraren erabilera ezberdinak...)

Beharrezko materiala:

Hamar egoerak fitsetan idatzi. Egoerek zerikusia eduki behar dute denbora pasarekin ala aisiarekin

Adb.: Zure logela bildu behar duzu, eta koadrilakoek deitzen zaituzte auzoko parkera joateko. Joango al zara?

2. Esperientziak elkar trukatzeko tailerra:

Helburua: Hainbat gaitasun ikastera bultzatzea, genero estereotipoetatik harata-go, nerabeei, gainera, beste pertsonak prestatzeko gaitasuna emanez.

Iraupena: 2 ordu

Metodologia:

Dinamika: "Galtzen baduzu, nik ere"

Garapena:

1. Lehenik, ekipamenduan proposatzen diren hainbat jardueraren arabera, jakinez beren kabuz hautatzen dutela jarduera, talde txikiak egiten dira. Jarduerak hezitzaileek proposatzen dituzte. Hobe da parte hartzean ezberdintasun handiak diren jarduerak hautatzea (kirolak, eskulanak...), Gazteleku bakoitzaren arabera. Adb: lau talde eta lau jarduera: ping-pong, mahai-futbola, papiroflexia, esku muturrekoak eta lepokoak egitea. Nerabeei beren trebetasunen arabera biltzeko esaten zaie (berek nahiago duten bezala).
2. Talde bakoitzean, epe batez, jarduera horretan egoten dira, eta pentsatu behar dute nola irakatsi jarduera hori inoiz egin ez duen bati.
3. Ondoren, talde bakoitzak, taldeka ala bakarka (parte hartzaile kopuruaren arabera) eta txandaka, beste taldekoei irakatsiko die jarduera hori ikasi nahi dutenei. Lehenik jarduera batekin, eta ondoren besteekin, banaka.
4. Hezitzaileek arreta jarri behar dute, jarduerarik mespretxatzen duten ikusteko; nerabeak indartu beharko dituzte, segurtasun falta edo lotsa sentitzen badute. Jarduera guztientzako interesa sustatu behar dute. (Kontuan hartu gidako irizpideak).
5. Nerabeak protagonistak diren ikaskuntza epe horren ostean, (ikasten eta irakasten dute), talde handian eztabaidatzen da, bakoitzak dakiena (sexuaren arabera), horren zergatiak, eta jarduerari dagozkion gaitasunak aztertzeko. Azkenik, ohartarazi behar zaie ez dela ez jarduera femeninorik ez maskulinorik

3. Sexista ez den idazketari buruzko tailerra:

Helburua: Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistak aztertzea, eta pertsonen jarrerengan duten eragina ulertzea.

Iraupena: 2 ordu

Metodologia:

Dinamika: “Nola irakurtzen nauzu, eta nola idazten nauzu?”

Garapena:

1. Hiru talde antolatzen dira, hainbat material berrikusteko: talde batek ipuinak berrikusiko ditu, bigarrenak komikiak, eta hirugarrenak aldizkariak.
2. Gidoi bat ematen zaie, berrikusteko hainbat ezaugarriekin:
 - a. Irudia (marrazkiak, argazkiak...): mutil eta nesken presentzia, egiten duten jarduera, ematen zaizkien koloreak, jantziak, lekuak...
 - b. Testua (ipuinak, biñetak...): hizkera maskulinoa, femeninoa, generikoa, neskei ala mutilei dagozkien adjektiboak...
3. Taldeen emaitzak konparatzen dira (materialen arabera: aldizkariak, komikiak eta ipuinak), eta ondorioak ateratzen dira.
4. Bakoitzak ikasitakoa praktikan jartzen du, idazketaren edota irudien bidez: ipuin labur bat idaztea, biñetak egitea, edo aldizkarietatik hartutako irudiekin collage bat egitea.

5 Gako-hitzen glosarioa

⇒ **Androzentrismo:** gizonak gauza ororen muina eta neurria diren arabeko mundu-ikuskerara, eta, ondorioz, beste guztia ezkutuan uzten duena (emakumeak eta mundu femeninoa). Maskulinoa “unibertsaltzat” jotzen da.

⇒ **Hezkidetza:** Hezkidetzak esan nahi du pertsona guztiak berdin prestatzea, gizarte generoaren hierarkiaren araberakoa ez den balore, portaera, norma eta aukera sisteman. Beraz, hezkidetza prozesuaren abiapuntuan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun eta berdintasunak daude, eta bi ereduak –femeninoa eta maskulinoa- barneratzen ditu. Helburua, sexu-genero sisteman oinarrituriko gizarte eraikuntzatik at joatea. Ardatz moduan pertsona hartzen du, bere hezkuntza integrala lortzeko, eta, bere gaitasun guztiak garatuz, nortasun propioak eratzeko.

⇒ **Genero diskriminazioa:** Sexu bakoitzaren eraikuntza sozial eta kulturala oinarri hartuta, egon daitekeen ezberdintasun, bazterketa eta murrizte oro. Horien ondorioz, emakume eta gizonen oinarritzko eskubide eta askatasunen onarpena, errespetua eta erabilera gutxitu ala deuseztatu egiten dira, bai politikan, gizartean, kulturean eta bizi zibilean, baita beste edozein arlotan ere.

⇒ **Aukera berdintasuna:** Aukera berdintasunaren printzipioaren bidez, genero ikuspegiaren planteamendu teorikoak aplikatu egiten dira. Genero ikuspegi alderdi epistemologikoa da, eta aukera berdintasuna, aldiz, alderdi praktikoa, errealitatean modu konkretuan esku hartzen baitu.

⇒ **Genero Nortasuna:** gizonak eta emakumeak gizartean sexuaren arabera pertsona orori esleitzen zaizkion eginkizun eta estereotipoen menpe daude, eta pertsonak berek barneratu egiten dituzte.

Sexu bati dagozkion eginkizunak besteari dagozkionen osagarriak eta elkar-dependenteak dira, kontrako ezaugarriak esleitu ohi baitzaizkie bi sexuei.

⇒ **Sexu:** Pertsonen sexuak, **emakume ala gizon**, alegia, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia.

⇒ **Genero:** Generoa **femeninoa** ala **maskulinoa** da. Sexua kategoria biologikoa da; generoa, aldiz, gizarte kategoria da; hau da, gizarte bakoitzean, sexu bakoitzarentzat egokia dena erabakitzen duen kultur esleipena, feminitatea ala maskulinitatea. Balore, betebeharrak eta jarrera jakin batzuk dakartza.

⇒ **Genero eginkizuna:** emakume eta gizonentzat egokitzen jotzen diren jarrerak sortzen duten aukeren multzoa genero eginkizuna. Oso definitua da, eta balore dikotomikoak ditu. Gizartearen arabera ezberdina izan daiteke, eta denboran ere aldatu egin da. Eginkizunak estereotipatuak izan daitezke, oinarritzko izaerekin nahas daitezke, eta ez onartuz gero, hainbat bazterketa mota sor daitezke.

⇒ **Genero planteamendua:** aurrekoa dela-eta, emakume eta gizonengandik jarrera “propioak” espero dira.

⇒ **Sexu-genero sistema:** Eginkizun, balore, jarrera, portaera eta gaitasun ezberdinak esleitzen dituen prozesua. Horren arabera ezartzen dira, era berean, sinbolo, irudikapen eta gizarte normak, sexu ezberdintasunetik abiatuz, eta gizarte ereduaren arabera: **gizarte eredu androzentrikoan**, gizona da muina. Eredu horren ondorioz, sexu-genero sistemaren bitartez, naturak sortutakoa eta gizarteak eraikitakoa identifikatzen dira.

Sexu-genero sistema identifikatzea baliagarria da, emakume eta gizonen arteko botere harremanak aztertzeko. Ezberdintasuna emakumeen arazoaren arrazoi nagusia da, eta arazoak areagotu daitezke, emakume izateaz gain beste ezaugarri batzuk baldin badituzte: etnia, gizarte talde edo adin jakin batekoa izatea, besteren artean.

⇒ **Genero ikuspuntu edo ikuspegia:** Planifikatutako ekintza orok emakume eta gizonengan dituen ondorioak baloratzeko prozesua, arlo guztietan eta maila guztietan, gizarte androzentrikoan bizi duten egoera ezberdina agerian uzteko. Estrategia bat da, emakumeen kezkek eta esperientziek gizonezkoen bezain toki garrantzitsua eduki dezaten, arlo guztietako politikak eta programak landu, martxan jarri, kontrolatu eta ebaluatzeko unean. Helburua politika eta programa horiek emakumeentzat gizonentzat bezain erabilgarriak izatea, eta ezberdintasunak ez iraunaraztea. Azken finean, genero ikuspegia barnerraztearen helburua generoen arteko berdintasuna lortzea da, gizarte antolamendu androzentrikoa zalantzan jarriz, eta emakumeen diskriminazioa eragin duten botere harremanak gaindituz.

⇒ **Sexismoa:** sexu femeninoaren gutxiagotasunean oinarritzen den teoria, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoetatik abiatuta. Emakumeak gizonak baino gutxiago direla suposatzen duen ordena horrek jarrera eta portaera estereotipatuak sortzen ditu, eta praktikan, sexu baten (emakumearen) mendekotasuna eragiten du, bestearen (gizonaren) arabera.

6 Dokumentua egiteko erabilitako materiala

1. Kapitulu:

- EMAKUNDE, “*Enplegu eta prestakuntza proiektuetan aukera-berdintasuna bultzatzeko ekintzak*”, Vitoria-Gasteiz, 2000.
- LIKADI, *Mainstreaming o enfoque integrado de género. Manual de aplicación en proyectos de empleo*, Likadi Formación y Empleo, S.L., Madrid, 2002.
- MEANA SUAREZ, Teresa, “*La utilización del lenguaje*”, Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolan ematen diren irakasgaien edukiak berrikusteko gidetan, Aukera Berdintasunerako Plana, UPV/EHUko L.H.U.E.
- Beste hainbat material, ADOS CONSULTING IKERTALDEA, S.Lk sortuak.

2. Kapitulu:

- EMAKUNDE, “*Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*”. Vitoria-Gasteiz, 2001.
- Ondoko herrietako nerabeentzako ekipamenduen (Gaztelekuak) arduradunei eginiko elkarrizketak:
 - Andoain
 - Astigarraga
 - Astigarraga
 - Zarautz

- Nerabeekiko lanean genero ikuspegia barneratzean aditutako pertsonei eginiko elkarizketak:
 - Iñaki Otamendi. Pasaiaiko Udaleko Gazteria
 - Elena Aycart. Kaleko hezitzailea Irunen
 - Samuel Díez. Irungo nerabeentzako ekipamenduko arduraduna

3. Kapituluak:

- ARABAKO FORU ALDUNDIA ETA GASTEIZKO UDALA. *“Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko Gida”*. Vitoria-Gasteiz, 2001.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua. Erabilera hezkuntza ez formalean ”*. Bilbo 2000.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta”*. Bilbo 2004.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Tiempo libre, ocio mujeres”*. Bilbo 2004.
- EMAKUNDE. *“Hezkidetzaz astialdian”*. Vitoria-Gasteiz, 1997.
- Ondoko herrietako nerabeentzako ekipamenduen (Gaztelekuak) arduradunei eginiko elkarizketak:
 - Andoain
 - Astigarraga
 - Astigarraga
 - Zarautz
- Nerabeekiko lanean genero ikuspegia barneratzean aditutako pertsonei eginiko elkarizketak:
 - Iñaki Otamendi. Pasaiaiko Udaleko Gazteria
 - Elena Aycart. Kaleko hezitzailea Irunen
 - Samuel Díez. Irungo nerabeentzako ekipamenduko arduraduna
- ADOS CONSULTING IKERTALDEA, S.L.ren moldaketa eta ekarpenak.

4. Kapituluua:

- MEANA SUAREZ, Teresa, *“La utilización del lenguaje”*, Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolan ematen diren irakasgaien edukiak berrikusteko gidetan, Aukera Berdintasunerako Plana, UPV/EHUko L.H.U.E.
- BENGOETXEA, Mercedes, *“Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género”* Bizkaiko Foru-Aldundiko Parekatuz proiektuko “Hitzak eta irudiak sexu-bereizkeriarik gabe erabiltzea” Lan Batzorderentzat idatzia.
- EMAKUNDE. *“Hezkidetza astialdian”*. Vitoria-Gasteiz, 1997.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua. Erabilera hezkuntza ez formalean ”*. Bilbo 2000.
- ADOS CONSULTING IKERTALDEA, S.L.ren moldaketa eta ekarpenak.